

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aurreakordioaren zain
egon gabe IÑAKI ALTUNA > 11

ISLANDIA: Baleak ehizatzer
joan, baina beraiek harrapatu
zituzten > 18

2015eko maiatzaren 2a | IX. urtea • 414. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BERDINTASUNA, OSPATZEKO DAGOEN GARAIPENA

EMAKUMEA KIROL ZELAIETAN EGITEN ARI DEN BORROKA, BERE JARDUNAREN KALITATEA ETA
KANTITATEA, IKUSTEN AL DIRA KOMUNIKABIDEETAN? %5 ETA 8,56 ARTEKO PRESENTZIA DAUKA
HEDABIDEETAN, HORTIK KONTUAK ATERA. BAINA, ZERGATIK? > 12 Jon URBE | ARGAZKI PRESS



**Hamar egun Brasilgo Via
Campesinarekin** 04

**Emakumeen kirola prentsan.
Berdintasuna, irabazteke dagoen
partida** 12

**Lursaguaren eta belatzaren
alegia** 16



**Baleak ehizatzerak joan, baina
beraiek harrapatu zituzten** 18

**E.lkarrizketa: Marcela Lagarde,
andreen ahotsa** 25

In fraganti, Anbroxi Ponce 28

Behatxulotik, Juantxo Egaña 30



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Bortizkeria? Baina nondik etorria?
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Hauteskunderen haragoko hirigintza
- 11 **Iñaki Altuna:** Aurreakordioaren zain egon gabe
- 22 **Gorka Zozia:** Ikara
- 23 **Laura Mintegi:** Sakabanaketaren jatorria eta geroa
- 24 **Amaia Ballesteros**
- 27 **Maider Iantzi:** Euskarak ez du sexurik, baina...
- 30 **Iratxe Esnaola:** Gaztetxoak eta teknologiekiko menpekotasuna

{ datorrena } Iratxe Urizar

Bortizkeria? Baina nondik etorria?

Egun hauetan, Ameriketako Estatu Batuetako hainbat gertakari ageri dira prentsan. Egun-kari batzuetan besteetan baino gehiago, baina hortxe da kontua: badirudi «iskanbilaren bat ala beste» egon dela, polizia batek gazte bat akabatu duelako; jendea erdi-zoratu ei da eta dena erretzeari ekin dio, dendak eta etxeak arpilatu ditu, eta arazoa kontroletik kanpo omen dago. Kontu serioa dela ematen du, tankeak ere ikusi ditugu eta! Oraingo honetan, Baltimoren izan da. Orain hilabete gutxi, udaran, Fergusonen izan zen. Egia esan, ezer gutxi genekien bi hiri horiei buruz, eta orain, aldiz, albistarien nazioarteko ataleko protagonista dira. Erreboltak, istiluak, herri-tarrak korrika, eta horien parean, polizia, polizia ugari, gerrarako jantzita goitik behera. Etxean geratzea agindu dute. Zirrargarria. Egia esan, neurri horrek salbuespen-egoerak ekartzen ditu gogora. Guardia Nazionala ere deitu dute, kaleetan zehar patruilatu dezan: estatu bakoitzak duen «milizia» antzeko bat da, eta estatuko gobernadorea da haien buru; miliziakideak, berri, boluntarioak dira, eta, hortaz, ulertzen da ez direla militar profesionalak. Hori bai: edozein armadak izan ditzakeen baliabideak dituzte (munizioa, eta abar). Uniformeak ere, halakoxeak. Hango irudiak ikusita, ematen du Baltimoren gerra gordinean murgilduta daudela. Herri-tarrak kontrolatzera deitu dituzte; alegia, hiriak dituen 600.000 biztanleak kontrolatzera.

Komunikabide handien goiburuetan, CNN, New York Times eta antzekoetan irakurri daitezkeen horietan, kaosaz eta gerraz ari dira. Tokiko prentsara hurbilduta, ordea, gauzak oso bestelakoak dira. Bertan, herri-tarrek sare sozialak erabiltzen dituzte tokian-tokian informatzeko. Informazio horietan, milaka eta milaka lagunak manifestaldiez ari dira: hiriko eta inguruetako mugimendu sozialek deituta, hainbat alorretako elkarte bildu dira, elkarrekin protesta egiteko; nazkatuta daude, egun batean bai eta hurrengoan ere bai entzuten baitute poliziak beste gazte bat erail duela. Gaztea, beti beltza; poliziak, zuriak.

Hala eta guztiz ere, beste behin zarata da nagusi, berri apoteosikoek eta irudi latzek eragindako zarata. Zarata,

ezer ulertzen uzten ez duena. Bertan esandakoa entzuten uzten ez duena. Injustizia baten aurrean batu, eta horri aurre egiten dion jendea erakusten ez duena. Herria ez da inon ere ageri: elkarren ondoan jarrita, modu antolatuan, poliziaren indarkeriaren aurka posizioak hartu dituen herria, hain zuzen ere. Horren ordez, kaosa, eta segurtasunaren eta beldurraren izenean armaz jositako soldaduak, hiria okupatzen. Hori gertatu zen Fergusonen, New Yorken eta beste hainbat hiritan. Manifestaldi jendetsuetan biltzen diren ahots horiek, datuekin eta argudioekin egiten diote aurre poliziaren indarkeriari. Asko dira, zenbakiei begiratuta, polizia-etxean hildakoak. Edota kalean, poliziek tirokatuta eroritakoak.

Baina, muinera etorrita, ezin ahaztu dezakegu zein izan zen errebolta hau piztu zuen txinparta, ez dugu ahaztu behar nola hil zen Freddie Gray gaztea, ez baitzen besterik gabe hil: bizkarrezurra hautsita zuen. Berri askorik ez dugu jaso, ordea, hori egin zioten poliziei buruz. Ez dugu topatu polizia-indarkeriagatik kondenatutako polizien kopuruari buruzko daturik ere. Eta poliziak duen zigorgabetasun hori da, azkenean, larriena, hiri osoa sustan, haserre bizian jarri duena. Manifestaldiak ez dira amaituko armaz jositako soldaduak bidalita, inpunitateak bere horretan jarraitzen badu. Bidaltzen den mezua zigorrik ezarena bada, nekez bukatuko dira horrelako hilketak.

Beraz, ez dezagun iparra galdu. Gertatu dena da herri-tarrak bildu egin direla, komunikabide nagusiek argazki hori erakutsi ez badute ere. Alde berean daude Baltimoren protestak ari direnak, Fergusonen egon zirenak eta espetxe-politika ankerraren aurka ari direnak. Mumia Abu Jamalen askatasunaren aldeko elkarteek, esaterako, bat egin dute Baltimoren ari direnekin. Izan ere, indarkeria hori ez da kaleetan bakarrik ematen, espetxe-politikan ere arrazakeria baita nagusi: zigorrak ezartzeko orduan, horiek ere arrazistak direla salatu izan da, eta, presoan ezaugarriak so eginez, ondorioztatu dezakegu uste horiek ez direla ustelak. Batzuetan, zifrek, berez hitz egiteko ahalmena dute: kopuru altuak, sistemaren bortizkeriarenak, eta baxu baino baxuagoak, bortizkeria horren aurkako zigorrenak. •

Manifestaldi jendetsuetan biltzen diren ahotsek, datuekin eta argudioekin egiten diote aurre poliziaren indarkeriari

EREIN BEHARREKO HAZIAK

Hamar egun Brasilgo Via Campesinarekin

📁 **EKONOMIA** / Antxoka Agirre

Gehiegi begiratu gabe bizi den horrek labela duen tomatea baztertu eta «*en rama*» deritzona –Eroskin erosi badu «sortakoa» ere jar dezake txarteltxoan– erosiko du hurrengoan, bigunagoa, baina zaporerik gabea izan arren. Eta hurrengoan «Raf» motakoa, jateko modukoa, baina haragirik gabea, edo «Cherry» hori, tomatetik bezainbeste mahatsetik duena. Eta pentsatuko du, agian, ez dela tomate garaia, baina «aizu, tomatetik gabeko entsalada bat, hori ez da fundamentua» esango dio bere buruari.

Izan daiteke gehiegi begiratu gabe bizitzea hautatu duelako, edo beste interes batzuk dituelako, edo ezarrita dauden kontsumo ohituren indarragatik, edo nekazaritza ekologikoarena burges txikien moda mistiko bat iruditzen zaiolako, edo topikoetatik haratago iristeko tarterik hartu ez duelako, baina ez dio buelta gehiago emango kontuari.


Begiak zorrozuko balitu, ordea, ikusiko luke apirilaren 17an Nekazarien Borrokaren Eguna izan dela munduan, eta elikadura burujabetzaren alde egiten dela borroka hori. Edo AEBak eta Europar Batasuna euren arteko merkataritza liberalizatzeko TTIP akordioa ari direla fintzen; sekretuak direla negoziazioak, eurodiputatuak ere ez zaiela aitortzen dokumentazio hori publiko egin eta zabaltzeko aukera, baina, aldi berean, multinazionalak euren tokia dutela mahaietan. Negoziatio horien barruan, egunotan Europar Batasunak 19 transgenikoren komertzializazioa baimendu duela ere irakurriko luke, agian.

Edo, jakingo luke 2017an Euskal Herrian ospatuko dela Via Campesinaren mundu mailako Konferentzia.

Via Campesina izena ezaguna suertatuko zaio akaso, baina izana kontu lausoagoa irudituko zaio ziurrenik. Ez du jakingo munduko mugimendu sozial handiena dela, Afrikako, Amerikako, Europako eta Asiako 73 he-

Lehen sektoreari gehiegi begiratu gabe bizi denak ere badaki kuadrillako pare bati otar bidez ortutik zuzenean ekartzen dizkiotela barazkiak. Esnearen inguruan egon diren gatazken berri ere izango zuen akaso. Edo konturatu da labela duen tomatea harria baino gogorrago egoten dela normalean. Begia gehiago zorrozuko balu, ordea, bertako nekazari askok apustua egin duela ere ikusiko luke, eta harrituta geldituko litzateke apustu horren dimentsio politiko eta eraldatzaileaz, akaso. Horretara eraman gaituzte EHNE-Bizkaia, Bizilur eta Etxaldek Brasilera, begia zorroztera.

Sao Miguel do Oesteko
hazitegi kooperatiban
jasotakoa da beheko aldeko
argazkia.
David LOPATEGI



rrialdeko eta 164 erakundeko (tartean EHNE-Bizkaia; jatorriaz, Basque Country/Spain dio VCren webguneak) 200 milioi nekazari, abeltzain eta artzain biltzen dituen. «Hiru mugimendu bakarrik daude mundu mailan antolatzea lortu dutenak: kapitalismoa, Eliza eta Via Campesina», entzun dugu hainbat aldiz egunotan Brasilen.

Aurtengo irailean Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herri-
tik pasako da. 2016an Europako kultur hiriburu izango da Donostia. Eta 2017an munduko nekazarien bilgune bihurtuko da Euskal Herria. Bada zerbait.


VIA CAMPESINAREN APUSTUA

1993an sortu zen Via Campesina. Urte hartan mundu mailako arantzelen arauketarako GATT akordioak gauzatu ziren, nekazaritza politikarako eredu neoliberal eta produkzio eredu industrial globalizatzeko pausu garrantzitsu izan zirenak, eta nekazariak konturatu ziren negoziatio haietan ere euren ahotza ez zela entzun. Antolatzeari ekin zioten eta, elkarlanean eta borroka asko eginez, gutxinaka Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea (FAO) edo Giza Eskubideen Kontseilua bezalako mundu mailako erakundeak eztabaidatan erreferente bat izatea lortu dute. Bide horretan guztian mugimendu anitza eta egituraketa horizontalekoa eratu du Via Campesinak, eta mundu mailako sei Konferentzia antolatu gaurdaino: 1993an, Mons (Belgika); 1996an, Tlaxcalan (Mexiko); 2000, Bangalore (India); 2004, Sao Paulo (Brasil), 2008, Maputo (Mozambique) eta 2013, Jakarta (Indonesia).

50eko hamarkadan AEBetan «Iraultza Berdea» izenarekin sortu zen eredua da egun nagusi, oinarri nagusiak mekanizazioa, berrikuntza teknologikoa, ongari kimiko eta toxikoen erabilera intentsiboa, errendimendu altuko aldaeren garapen bioteknologikoa, monolaborantza eta espezializazioa dituen. Via Campesinak salatzen duenez, eredu honekin munduko biz-

1993an sortu zen Via Campesina; arantzelen arauketarako mundu mailako GATT akordioek produkzio eredu industrialak globalizatzea zekarten, eta horien kontra egiteko abiatu zen

Egungo ekoizpen ereduak munduko biztanleria elikatzeko behar denaren %150 ekoizten duen arren, inoiz baino gehiago dira gose direnak, 900 milioi pertsona; eta hirutik bi nekazariak



Passo Fundoko «Vida e Terra» kanpamenduan, nekazari bat lanean. David LOPATEGI

BIDE BERRIAK

Iazko ekainean izenburu hori daraman dokumentala estreinatu zen Euskal Herrian. Dokumental bikaina da, elikadura burujabetzaren inguruan gurean gauzatu izan diren ekimenen berri eman eta hainbat ideia eta datu eskaintzen dituena: Bertako esne ustiatuegien %40 eta nekazaritza lurren zati handi bat galdu da azken 20 urteetan; bertako nekazaritza ustiatuegien %90ek ez du erreleborik; ekologikoarekin ezin da gaur-gaurkoz Euskal Herriak dituen elikadura beharren %100 ase, baina horrek behar du xede; topikoak dio ekologikoa ez dela jasangarria, baina ez da egia, eta instituzioak ere hasiak dira konturatzen; instituzioek lurrik erosi beharko lituzkete, edo bestela okupatzeari ekin beharko zaio; ekoizle eta kontsumitzaileen arteko komunikazioa berreskuratu beharra dago; ekoizle eta kontsumitzaileen arteko kooperatiba mistoak eratu beharko genituzke...

Dokumentala, alde guztietatik begiratuta, oso ona da. Baina izenburuari egin dakioke ñabardurarik; elikadura burujabetzari dagokionez, bide berriez ari da, baina dokumentalean parte hartu dutenen zerrendari begiratu soil bat ematearekin jada hainbat pausu eman direla ikus daiteke: Arantzadi bizirik, Red Agroecológica de la Ribera, Euskal Herriko Laborantza Ganbera, Lurzaindia, Idoki, Basaburu, Zerain dezagun Fundazioa, Ekolapiko, Oiartzungo Urmendi Haur Eskola, Gernikako Azoka, Esnetik kooperatiba, EH Hazien Sarea, EHNE-Bizkaia, Via Campesina, Uribe Kostako Agroasanblada, Deustuko Kontsumo Sarea, Nekasare, Orduñako ekoizpen zerbitzua, Bedarbide Elkartea, Bizkaia Esnea, Karrantzako hiltegia, Laneko kooperatiba, Txaramela Pasta Ekologikoa, Euskal Herriko Laborarien Batasuna...

Azpimarra berezia merezi dute dokumentalaren ekoizleek: Etxalde eta Bizilurrek. Lehenengoa Hegoaldetik EHNE-Bizkaiak eta Iparraldetik Euskal Herriko Laborantza Ganberak (ELB) elikadura

burujabetzaren alde eragiteko sortu duten mugimendua litzateke. Bigarrena GKE bat da, 2002an Urduñan elikadura burujabetzaren inguruan abiatu zen elikadura burujabetzako esperientziaren inguruan sortua, baina denborarekin eta hainbat lagunen pasioari esker, Via Campesinaren eta Zapatismoaren laguntzaile eta Euskal Herriko elikadura burujabetzarako estrategiaren elementu garrantzitsu bihurtu dena.

Dokumental horretatik kanpo gelditu diren hainbat ekimen interesgarri ere badago, noski. Aramaion elikadura, energia eta burujabetza kulturalaren inguruan garatu den proiektua; Sopelako elikadura jasangarriko proiektua; Larrabetzun udal jangelen inguruan gauzatu dutena; Iparraldean Idokin edo Lurzaindian gauzatu dituztenak; Gatzagako gatzaren museoa berreskuratu duena; Bertatik Bertara proiektua; Nafarroako baratza ekologikoak, Errigora proiektua barne; BasHerria; Nekasarea; Arratiako agroasanblada; Ajangizko eta Ezkerraldeko Nekazal Garapenerako planak; han eta hemen sortu diren kontsumo taldeak... Eta formazioan ere eman dira pausu batzuk, UEU eta EHUren Hegoa Institutoa Nekazaritza Ekologikoaren inguruko ikasketak hasi baitira eskaintzen.

Maila orokorragoan, ASSEH (Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Eragileen Aliantza) ere eratu da, VSF, Emaus eta Mundubaten parte-hartzearekin, edota izaera guztietako 140tik gora eragilek sinatu duten Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren oinarrietan ere jasotzen da eredu aldaketa.

Euskal Herrian biztanleriaren %3 baino ez da ari lehen sektorean, kontsumitzen diren elikagaien %5 ekoizten duen 'Iparralde Globalaren' baitan kokaturik gaude, eta ez daukagu Brasilen ikusi dugun bezalako giharrik, baina sarea ari da ehuntzen, askotarikoa, kontzientziatua, aktiboa, horizontala. 2017ra begira ere sortuko dira berriak.

tanleria elikatzeko behar denaren %150 ekoizten den arren, inoiz baino gehiago dira gose direnak, 900 milioi pertsona, eta horien artean, hirutik bi nekazariak dira.

Lurren kontzentrazioa ere salatzen du aukera duen bakoitzean, multinazionalak urtero 10 milioi hektarea bereganatzen dituztela azpimarratuz; munduko lurren %65 euren esku dagoela dagoeneko. Montalbo, Sygenta, Nestlé, Bunge, Bayer, Dupont edo Cargill bezalako izekak dituzten lurjabe hauen helburua ez da "Iraultza Berdeak" aldarrikatzen zuen bezala garapena bermatzea eta gosea desagerraraztea, dirua egitea baizik,


eta dirua herrialde txiroetan merkeago ekoitziz eta aberatsetan garesti salduz egiten dute. Horrek hegoaldeko gosea areagotzea dakar, nekazariak elikatzeko erabiltzen zituzten lurrik esportaziorako monolaborantza bihurtzen baitituzte (Brasilgo kasuan %538ko hazkundera 1990tik 2008ra, esaterako). Era berean, iparraldeko ekoizpenek lehiakortasuna galtzea dakar, eta bertako nekazaritzak, bestelako hainbat enprekin gertatu den bezala, deslokalizazio prozesua jasatea.

ERABAKIAK, HERRITARREN ESKU

Nekazari mugimenduak multinazionalak eta maioristek ha-

zien, ongarrien eta toxikoen ekoizpena monopolizatze bidean direla salatzen du, halaber, eta transgenikoen garapena dela horretarako azken pausua (Bigarren Iraultza Berdea deitzen diote aldekoek). Edo sustatzen diren monolaborantzek biodibertsitatea (20 urtean munduan 150 milioi hektarea baso suntsitu dira, esaterako) ez ezik, tokian tokiko nekazaritza kultura eta bizimodua ere suntsitzen dituela.

Eredu alternatiboa proposatzen du Via Campesinak, proposatu eta egunez egun praktikara eramanez, 200 milioi nekazari txiki eta ertain horien eskutik. Elikadura burujabetza deritzo



Florestan Fernandez
eskolaren eraikin bat.
Lurrik gabeko nekazariak
auzolanean altxatako
proiektua da. Arrate ITURBE

eredu honi, eta lehen aldiz FAOK 1996an antolatu zuen Erromako Elikaduraren Munduko Goi Bileran aurkeztu zen teoriazioa du oinarri. Honela, azpimarratzen da elikaduraren eta elikagaien ekoizpenari eta kontsumoari dagozkion erabakiak herritarren esku behar dutela, eta nagusiki ekoizle nahiz kontsumitzaileak izan behar direla erabaki subjektu, multinazionalak edo enpresa handiak beharrean (Bolivian, Nepalen, Malin eta Senegalen Konstituzioan jasodute kontzeptua).

Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeaz gain, apustu jakin bat ere egiten da: tokian tokiko elikagaien ekoizpen ekologikoa eta gertuko kontsumoa lehenetsi behar dira, egiteko modu horiek behar den produkzio mailara iristeko gai direlako, eta merkeagoak, osasuntsuagoak (Brasilen 5,2 kilo toxiko ei dira urtean biztanle bakoitzak irensten dituenak), iraunkorragoak eta ingurugiroa, aniztasun kulturala eta nekazarien duintasuna areago errespetatzen dutenak direnez.

HAMAR EGUN BRASILEN

Apirilaren 8tik 19ra, Etxalde, EHNE-Bizkaia, Bizilur eta Brasilgo Via Campesinaren ekimenez, eta Lakuaren Garapenerako Lan-

kidetzaren Euskal Agentziaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nazioarteko Garapenerako Lan-kidetza Zuzendaritzaren eta Europar Batasunaren finantziazioarekin, euskal ordezkari zenbait Brasilen egon gara elikadura burujabetzaren inguruan garatu dituzten esperientzia batzuk ezagutzen. Euskal Herriko base-rritarren mugimenduko ordezkariak (EHNE-Bizkaia eta Etxalde), sindikatuetaoak (ELA eta LAB), instituzionalak (Udalbiltza, Ezkio-Itsasoko alkatea, Bilboko zinegotzi bat, Gipuzkoako Foru Aldundia), eskualde eta udal garapen agentzietako ordezkariak eta teknikariak (Mutrikuko Udaleko Tokiko Garapena, Urola Garaiko Garapen Agentzia, Tolosako Tolomendi Landa Garapeneko Agentzia, eta Aramaio eta Gatzagako proiektuak), mugimendu sozialak (Bilgune Feminista, Ernai eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta), EHUKo irakasleak (Soziologia eta Kazetaritza Sailetatik) eta Bizilurreko kideak joan gara taldean. 17 lagun, ordezkaturiko erakundeak edo proiektuak baino pertsona gutxiago, gastuak kontrolatu eta emaitza biderkatzaille bat lortu nahian. Diziiplina anitzeko taldea, nork bere alorrean ekarpentxoa egiteko xedearekin, anitza, baina batez ere animosoa, hartutako neke-lanak gorabehera, beti prest azaldu dena.

Elikadura burujabetzaren arabera, elikaduraren eta elikagaien ekoizpenari eta kontsumoari dagozkion erabakiek herritarren esku behar dute, ez multinazionalen esku

Lula eta Dilma Rousseffen PTak gauzatu dituen politikekin ez daude oso pozik. Nekazaritza ekologikoari baino babes gehiago eman omen diote nekazaritza industrialari

tuak), mugimendu sozialak (Bilgune Feminista, Ernai eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta), EHUKo irakasleak (Soziologia eta Kazetaritza Sailetatik) eta Bizilurreko kideak joan gara taldean. 17 lagun, ordezkaturiko erakundeak edo proiektuak baino pertsona gutxiago, gastuak kontrolatu eta emaitza biderkatzaille bat lortu nahian. Diziiplina anitzeko taldea, nork bere alorrean ekarpentxoa egiteko xedearekin, anitza, baina batez ere animosoa, hartutako neke-lanak gorabehera, beti prest azaldu dena.

Brasil, herrialde bat baino, kontinente bat da. 200 milioi biztanle ditu eta 8,5 miloi kilometro koadro. Antolatzaileek banatu diguten gidan jasotzen denez 28 alderdi politikok dute ordezkaritza bertako Ganbera Legegilean; mugimendu sozial eta sindikatuen zerrenda are luzeagoa da, eta nekazaritzarekin zerikusia duten plan, programa nahiz erakunde publikoen izen eta akronimoek bi letra zopa egiteko ematen dute. Ez da lan erraza, bada, bertako errealitatearen irudi osatu eta zehatz bat eskaintzea, baina antolatzaileek ahalegina egin dute, baita lortu ere, programa benetan potente bat lotuz.

Mugimenduetako ordezkariak, sindikatuetaoak, ordezkari instituzionalak, establimendu zein kanpamenduetako jendea, kooperatibistak, ingeniariak eta teknikariak, unibertsitateko irakasleak eta ikasleak, etab. Hamar egunetan hemezortzi hitzaldi izan ditugu; bakoitzean, batezbestean, hiruzpalau hizlariaren azalpenak entzun, galderak egin eta eztabaidatzeko tar-tearekin. Esperientzia zenbait bisitatzeo aukera ere egon da, teoria adibide praktikoeekin osatzeko: MSTk eraikiriko Florestan, Fernandez eskola, Sao Paulo ondoan; azoka ekologikoa, Porto Alegren; arroz organikoa lantzen duen kooperatiba, Dorado do Sulen; arroz eta barazki organikoak lantzen dituzten establimenduak, Nova Santa Ritan eta Viamoon; lurrak okupatu dituen kanpamendua, Passo Fundon; ogia lantzen duen emaku-

me nekazarien kooperatiba txikia, Sagrada Familiar; hazi kreolak ekoiztera bideraturiko kooperatiba, Sao Miguel do Oesten; nekazari feministen komunitatearekin bazkaria eta bazkalondoa, Quilombon; Biogasa ekoizten duen komunitatea, Itaparangan; mugimendu feministak eraikiriko formazio zentroa, Chapecon; Universidade Federal Frontera do Sulera bisita, Chapecon baita ere; edota Sao Pauloko Udaletxera eginiko bisita.

Toki guztietan hartu gaituzte etxean bezala, eta toki bakoitzean sekulako bizipozarekin partekatu dute euren esperientzia. Honela, informazio baliagarri mordo jaso dugu, dela Euskal Herrira ekar litezkeen praktika edo ideiak direlako, dela norberarentzat baliagarriak diren istorio, emozio edo grinak eskaini dizkigutelako.

Brasil, herrialde bat baino, kontinente bat da, eta batetik besterako distantziak ez dira geurean bezalakoak. Batez ere hegoaldeko hiru estatutan bakarrik ibili garen arren (26 dauzka Brasilek), eta tartean bi barne hegaldi egon badira ere, ordu mordo joan dira mikrobusean, Christian eta Paolo handiak gidari genituela, atzera eta aurrera. Eta ordu hauek ere ez dira alferrik galdu. Lo kuluxka batzuk egiteko ez ezik, elkarren berri jakiteko eta brasildarrengandik jasotako informazio tonak elkarrekin barneratzeo aukera polita ere izan dira. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta; PNAEaren moduko zerbait Euskal Herriko eskoletako jangeletan aplikatu ote litekeen; TIPK Europako haragi ekoizleen amaiera ekarri dezakeela; arrautzen barra kodeetan ekoizteko modua jasotzen den informazioari buruzkoak; norbaitek etxeko ortuan landaturiko senda belarrak; horiek hizpide. «Camponeses, camponesas ¡Viva San Fermin!». Txiste txarrak egin eta adar-jotzerako ere ez da aukerarik galdu, noski.

Beste askorako tarterik ez da egon; churrasqueria bat edo beste, mate dezente, gaucho ikuskizun bat, delegazioko kide-

ETXEKOAK

ren batek oso gertutik ikusi zue-
na zartailu eta guzti, “A Vida No
Sul” telebista saioak egin zigun
elkarrizketa, bertako kuadrilla
handi baten urtebetetze afari-
tzar surrealista (besteak beste
musika bandak Clavelitos jo
zuen euskaldunon ohoretan),
caipirinharen bat, barruan trago
bat hartzen ari ginela Sao Paulo-
ko poliziaik itxi zuen diskoteka
bat ere bai (ez genuen ulertu
zergatik izan zen, baina ez zen
gure errua izan) eta portugesez
ikasitako hitz gutxi batzuk (ne-
kazaria-campones, elkarlana-
parceria...).

MALETAN EKARRITAKOAK

Hazi kreolak ekarri ditugu male-
tan. Debekatuta dago baina
MPAkoek Sao Miguel do Oeste-
ko hazitegian oparituriko hazi
poltsatxoek arazorik gabe pasa
dituzte aduanak. Eta paper, in-
forme, programa, liburu eta li-
buruxka mordoa ere ekarri du-
gu, kiloka, Brasilgo
esperientzien berri ematen du-
tenak; hauek ere hazi kreolak
neurri batean.

Euskal Herrian baliagarriak
izan daitezkeen artean neka-
zaritza mugimenduak eraikiriko
aliantzak izan dira interes
gehien piztu dutenak. Institu-
zioekin gauzatu dena, esatera-
ko: PAA eta PNAE programak.
Lehenengoaren bidez, gober-
nuek nekazariei zuzenean eros-
ten dizkiete gero jangela publi-
koetan (ospitaleak, espetxeak,
Elikagaien Bankua eta abar)
kontsumitzen diren produk-
tuak. Bigarrenak, aldiz, ikastetxe
publikoetako jangeletan kontsu-
mitzen diren elikagaien %30 in-
guruko nekazariak ekoiztitako-
ak izan behar direla dio.

Ezagutu ditugun mugimen-
duetako kideen testigantzak bat
datoz; ez daude konforme Lula-
ren eta Dilma Rousseffen PTak
gauzatu dituen politikekin.
Agindutakoa ez dutela bete dio-
te, nekazaritza ekologikoari bai-
no askoz ere babes erabakiga-
rriagoa eman zaiola nekazaritza
industrialari, programa hauek
ere ez dutela behar bezala fun-
tzionatzen... Baina denak bat da-
toz programa horien garrantzi
handia aitortzerakoan (nekaza-

Apirilaren 10etik 17ra Argentinan
Coordinadora Latinoamericana de
Organizaciones del Campo (CLOC)
delakoaren hiru urtean behineko Biltzar
Nagusia burutu da. Brasilgo Via
Campesinako hainbat eta hainbat
buruzagi joan da bertara, baita gure
esperientziaren antolakuntzan aritu diren
MST, MAB, MPA eta MMCKo kideak ere, eta
komentatu izan digute horrek zailtasunak
eragin dizkiela gure ordezkari tzari behar
bezalako harrera egiteko. Guk ez dugu
nabaritu.

Movimento dos Trabalhadores Rurais
Sem Terra (MST) 1984ean sortu zen eta
miloi eta erdi kide ditu egun, horietatik
150.000 familia kanpamenduetan eta
beste 380.000 asentamenduetan bizi
direlarik. Kanpamenduak latifundista
baten lurra okupatu dituzten nekazari
komunitateak dira. Plastikoko beltzez
estalitako txabolatan bizi dira,
okupatutako lurra lantzetik, antolakuntza
komunitario batekin, epaile baten
aginduak bertatik bota ditzaketenaren
mehatxupean. Asentamenduak, aldiz,
legeztaturiko kanpamenduak dira,
Brasilgo konstituzioak lurrek bere funtzio
soziala bete ezean, alegia produzitu ezean,
desjabetu egin daitezkeela dioenez,
epaileek hainbatetan usufruktuan ematen
baitizkiete okupatzaileei. Gune hauetan
bizitakoak izan dira hamar egunotako
esperientzia hunkigarrienak: Passo
Fundoko “Terra e Vidan” kanpamenduan,
polizia egun batetik bestera etorriko
zitzaiela jakin berri bazuten ere, bertako
80 familiek ez zuten etsitzeko asmorik;
Nova Santa Ritako asentamenduan, euren
egoera legeztatu arte kanpamendu batetik
bestera bizi izandako lau urtetako odisea
kontatu ziguten; edo Porto Alegreko azoka
ekologikoan ogia oparitu harrotasunez
bikote batek: «Kanpamenduetan bizi
ginenean askotan ez genuen ahora
eramateko ogirik ere, eta geure buruari
zin egin genion egunen batean geuk
ekoiztitako ogia salduko genuela».

MOVIMENTO DOS ATINGIDOS POR BARRAGENS (MAB)

Brasil munduko lehen potentzia da
energia hidroelektrikoaren ekoizpenean,
azken hamarkadetan dozenaka proiektu
erraldoi gauzatu dituelarik. Proiektu
horiek, orde, milaka nekazariren lurra
suntsitu dituzte, eta baita dozenaka herri
eta komunitate ere. Kaltetu horiek guztiak
MABen antolatu dira azken bi
hamarkadatan, lur berriak edo kalte-
ordainak eskatzeko (normalean ez zaie
deus eman), eta indarrean dagoen eredu
energetikoaren gabeziak eta alternatibak
proposatuaz. Itaparangan, esaterako,
duela hamabost urte euren lurretan presa
bat egitea aurreikusi zenetik ez dute
deskantsurik hartu: mobilizazioak,
elizarekin eta inguruko instituzioetako

ordezkariekin bilera eta akordioak,
sinadura bilketak, presarako proiektu
txikiago baten diseinua... Euri ura eta
eguzki-plakak euren zerri haztegiak
hornitzeko, zerrien zimaurretik ateratzen
duten biogas ekoizpena... Alemaniarren
ondorengoak izanik alemanaren adiera
zahar bat hitz eginaz (eta eskolan
irakatsiaz) eta puntualtasun
germaniarrarekin (gu ere oso presaka ibili
gintuzten uneoro) egin dute hau guztia
gainera.

MOVIMENTO DE MULHERES CAMPONESAS (MMC)

Duela 20 urtetik ari dira lanean, nagusi
den ereduaren ondorio gordinenak
jasaten dituen emakume nekazarien
egoera hobetu nahian. Mugimenduen
diskurtsoan eta zuzendaritza guneetan
parekidetasunak dezenteko pisua lortu
du, baina oraindik ere lan asko dago
egiteko, frente ezberdinetan. Ondorioz
denetarik entzun eta ikusi ahal izan dugu.
“As Camponesas” okindegi kooperatibako
sei emakumeena bezalako istorio ederra
kasu, lan eta borroka askoren ondoren
hasieran kontra zuten ingurua,
gertukoena behintzat, parekidetasunean
heztera eta herriko emakumeen
erreferentzia izatera eraman dituen.
«Tratu txarrak jasotzen dituzten
emakumeak gure okindegira etortzen dira
babes eske», kontatzen dute. Edo Noeli
Taborda, Chapecon hitzaldia eman zigun
buruzagiarena, bezalako adierazpen
garratzak: «Nekazaritza ekologikoa
aldarrikatzen hasi ginenean ‘emakume
kontutzat’ hartu zuen askok. Gero
mugimendu guztia lerratu da apustu
horretara. Edo ekintza bortitzekin hasi
ginenean, Monsantoen laborategiak

okupatzen eta abar, burugabekeria bat
zela esan zuten askok, eta gero ikusi da
oso eraginkorra izan zela. Aitzindariak
izan gara emakumeak borroka honetan
baina inoiz ez digute aitortu».

MOVIMENTO DOS PEQUENOS AGRICULTORES (MPA)

1985etik 1995era Brasilen %20an murriztu
zen familien nekazaritzarako baliaturiko
lurren hedadura eta bost miloi lanpostu
galdu ziren lehen sektorean. Hala ere,
oraindik dezenteko pisua den sektore bat da
(biztanlegoaren %15a, alegia, 30 milioi
nekazari), eta azken hamarkadan,
nekazaritza industrialak erabat bazterrean
uzten zituela ikusita, MPAREN inguruan
antolatuta nekazaritza ekologikoaren
aldeko apustu garbia egin dute nekazari
txikiek. «Ez dugu multinazionalen edo
enpresa handien soldatapeko langile
bihurtu nahi, nekazariak gara, eta horri
eutsi nahi diogu», azaldu digu Tairi Felipek.
Nekazaritzaren duintasuna berreskuratzeko
Programa integralaren azalpen bikaina egin
digute, eta Sao Miguel do Oesteko hazitegi
kooperatibaren esperientzia ere oso
interesgarria izan da: inguruetako
nekazarien haziak berreskuratzen dituzte,
gobernuaren komertzializazio lizentziak
lortzeko tramite guztiak egin, haziak
transgenikoen kutsadurarik ez dutela
ziurtatzeko teknologia bat garatu dute...
«Nekazarien artean erabat berezkoa izan da
ezagutza eta hazien elkar trukaketa. Galtzen
hasia zegoen hori eta berriro aktibatzea
lortu dugu», esplikatu digu Tairirik. Gure
euskal ordezkari tzak laguntzen aritu da
MPAko buruzagi gazte hau hamar
egunotan, itzultzaile eta gidari lanetan, eta
esan beharrik ere ez dago ezin hobeto egin
duela.



Porto Alegreko azoka ekologikoan jasotako irudia. Begoña ZALBIDEA

«Elikadurak, osasunari eragiten dion kontua denez, ez die nekazariei bakarrik eragiten. Eta nekazariak euren lan indarretik bizi direnez, euren borroka langile klase osoarena da»

rien pobrezia tasa %40tik %30era jaitsi da PTren guber-
nuekin), eta jarrera kritiko bate-
kin bada ere, gobernuari euren
babesa ematen diote eskuinaren
erasoen aurrean (azken aldian
militarren esku-hartzea eskatze-
ra ere iritsia da eskuin hori
hainbat mobilizaziotan).

Garatu duten beste aliantza
garrantzitsu bat landaren eta hi-
riaren artekoa izan da. Central
Única dos Trabalhadoreseko
(CUT) Jairok laburbildu digu oi-
narrian dagoen filosofia: «Elika-
dura, osasunari eragiten dion
neurrian, ez da bakarrik nekaza-
riei eragiten dien kontu bat.
Bestalde, nekazarien borroka,
euren lan indarretik bizi dire-
nez, langile klase osoaren borro-
ka ere bada. Eta eredu neolibera-
lari kontrajartzen zaion eredu
bat lantzen ari direnez, hor gure
elkartasun osoa izango dute».
Rio Grande do Sul estatuan
140.000 afiliatu dituen metala-
ren sailean dihardu buruzagi
beterano honek eta esplikatu di-
gu sindikalista eta nekazariak
elkarrekin joaten direla fabrikaz
fabrika elikadura burujabetza-
ren bertuteez informatzera, eta
gero Hitzarmen Kolektiboan
lantegiko jantokirako nekazariei
zuzenean erosteko klausula bat
eskatzen dutela. «Kontsumoa
ekintza eraldatzaile bihurtzen
du horrek; sistema sistemaren
barrutik aldatzeko modu bat da,
nekazariak proposatzen dute-
nak dimentsio politiko oso gar-
bia baitu», gaineratu du Jairok.

Ez da nekazarien eta langileen
artean adostu den akordio baka-
rra. “Plataforma Operaria E
Camponesa Da Energia” delako-
ak, hamahiru sindikatuz eta Via
Campesinako mugimenduez
osatuta dagoenak, proiektu
energetiko herrikoi bat proposa-
tu du, mundu mailako interes
geopolitikoen arabera dantzara-
zitako esparru horretan (CIA,
Frantzia eta Txina aipatu dizki-
gute, besteak beste) Brasilen
energia burujabetza aldarrika-
tzeko.

Prestakuntzari ematen dioten
garrantzia da interesgarria suer-
tatu zaigun beste alderdi bat.
Prestakuntza teknikoari dago-
kionez, sekulako ahalegina ari

**«Kontsumoa ekintza eraldatzaile bihurtzen du
honek, sistema sistemaren barrutik aldatzeko
modu bat, nekazariak proposatzen dutenak
dimentsio politiko oso garbia baitu»**

dira egiten. Irakaskuntza ofizia-
lak ez du nekazaritza industria
baino irakasten, eta eskola sare
bat osatu dute, nekazarien ja-
kintza tradizionala berreskura-
tu, irakatsi eta ikerketzen hasia
dena. Prestakuntza ideologikoa-
ri ematen dioten garrantzia da,
ordea, deigarriena iruditu zai-
guna. Florestan, Fernandez es-
kola da harribitxi distiratsuen-
a: mugimenduetako agintariak
politikan trebatzeko sortua, bo-
luntarioen lanaz eraiki eta Bra-
silgo nahiz nazioarteko elkarta-
sunari esker finantzatua, uni-
bertsitate campus txiki bat
hainbeste da tamainan eta erre-
ferente bihurtu da munduko
mugimendu sozialentzat. Peda-
gogia bat ere garatu dute pro-
pio, ikastordu magistralei be-

Nekazari feministekin bildu
zen euskal ordezkaritza
Quilonbon. Emakumeak
dira egoera gordinena
jasaten dutenak eta gogor
egiten dute horren kontra.
Begoña ZALBIDEA

zainbesteko garrantzia ematen
diona komunitatean bizi beha-
rreko esperientziari. Sortu du-
ten eskola-sare osoan eskain-
tzen dute prestakuntza politiko
hori, euren pedagogia aplikatuz,
eta hegoaldeko mugimendu so-
zialen borrokaren fruitu gisa
ulertzen den Universidade Fed-
eral Frontera do Sulen ere, duela
bost urte jarri zuten martxan,
sei campusen bitartez.

Prestakuntza horren emaitza
bistakoa da han eta hemen har-
tu gaituzten mugimenduaren
buruzagiek erakutsitako gaita-
sunean, baina baita kanpamen-
duetako plastiko beltzaren az-
pian bizi direnen artean edo
kooperatibarik xumeenean la-
nean ari direnen artean ere. De-
nek dute kolektibo baten baita-
ko izatearen kontzientzia,
borroka kolektiboaren nondik
norakoaren ideia garbi bat,
kojuntura politikoaren irakur-
keta partekatu bat... Klase borro-
ka, kapitalaren erasoak, erresis-
tentziaren duintasuna, eta abar,
gurean akaso usatuegiak dirudi-

ten kontzeptuak bizi bizirik
hautematen dira euren gogoan.

Hain zuzen ere, gehiegi begi-
ratu gabe bizi den horrek aipa
dezake Euskal Herria ez dela
Brasil, hango egoera sozioeko-
nomikoa eta hemengoa oso ez-
berdinak direla, bateko eta bes-
teko mugimendu sozialen
neurriak ere ezin direla pareka-
tu. Ez zaio arrazoirik faltako,
baina begia zorrozuko balu, he-
men ere dezenteko saltsa dagoe-
la usaindu ahalko luke. Jakingo
luke European ahora daramatza-
gun jakiek 4.000 kilometro egi-
ten dituztela batezbestean, edo
Euskal Herrian kontsumitzen
diren barazkien %4 baino ez di-
rela ekoizten bertan. Eta nabari-
tuko luke bertako ekoizle eta
kontsumitzaileak hasiak direla
eredu aldaketarako pausuak
ematen.

Gu behintzat errezelo horre-
kin etorri gara Brasildik; asko-
ren arteko elkarlana eta elkarta-
suna direla medio, elikadura
burujabetzan bide polita egin
daiteke Euskal Herrian ere.




1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGA1



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Hauteskundeez haragoko hirigintza

Bozkatzeko eguna gerturatu ahala, alkate izateko hautagaiek gero eta gehiago hitz egiten dute hirigintzari buruz. Ulergarria da, alkategaiek bultzatutako hiri-ereduek boto-emaileen eguneroko bizitza dezente baldintzatu dezaketelako, onerako zein txarrerako. Ez da kasualitatea izango, hortaz, Hego Euskal Herriko hiriburuetakoraingo alkateen erdia arkitekto izatea, adreiluaren pisuaren erakusgarri. Ez da erraza soilik diskurtso urbanistikoaren arabera alderdi politikoak ezagutzea, hala ere, hizkuntza eufemistiko samarra delako nagusi. Baina, izan, badira ezberdintasunak eskuinaren eta ezkerren artean. Tenpusetan, bereziki.

Zentzu horretan, haurren mailako eztabaida piztu zen Gasteizen duela bi aste, PPren eta EAJren artean. Hauteskundeetan atarian biek aldarrikatu baitute «Smart City» delako hiri-eredua, eta, orain, nor nork kopiatu zuen argitzen da biltza. Alferrik, baina, kontzeptu ustez urbanistiko horrek hamar urte baino gehiago dituelako. Hamarkada bat darabate teknologien alorreko enpresa handiek (Philips, Vodafone, IBM, Microsoft, Cisco, Alstom...) udal-gobernariak kontentitzen haien produktu garestietan inbertitu dezaten diru publikoa, hiriak efizienteago bihurtzeko, arazo funtzionalak di-da konpontzeko. Eta teknologiaren espektakularizazio ustez sofistikatu eta azkar hori, bereziki elitearen mesederako ezarri nahi dena, «hazi arazi» lelotzat duten (beste «kasualitate» bat) bi alderdi eskuindar horien gustukoa da. Oso.

Badirudi, bestalde, ezkerreko alkategaiek hiri-eredu geldoago baten alde egiten ari direla, oro har, eta, halaber, nahita edo nahi gabe, maileguan hartutako modako hitzen gerran ere sartu direla. «Cittaslow» (urteekin saskinaski bat bihurtu dena), eta, bereziki, azken urteotan, «Transition Town» bezalako terminoak dezente entzuten ari baikara. Etiketez eta zigiluez harago joan beharko lirateke politikariak, sakoneko ideiak azpimarratuz: eskubide indibidualak zein kolektiboak bermatzeko, zeinahi direla ere (irisgarritasuna, berdintasuna, sabaia), hartu behar da hirigintza arloko erabaki oro. Giza-duintasuna helburu.

Azkenik, Euskal Herriko zenbait alkate(gai)ren kasu bitxia aipatu daiteke; irabazten duenak irabazten duela, goragoko Administrazio batetik (itxuraz udal-mailako diren) jasoko dituz hirigintzako aginduak. EAEn ez bezala, Nafarroan, hiri-mailako proiektu garrantzitsuenak Udalak saihestuz Foru Gobernu zentraletik zuzenean erabakitzen dira PSIS delako tresnaren bidez. Adibidez, Lekarozen 252 etxebizitza, golf-zelai bat eta hotel bat egiteko proiektua ezin izango du Baztango alkate berriak gelditu: Udalak egin arren udalerriko hirigintza gidatzen duen Plan Orokorra, hierarkia urbanistikoan gorago dagoen PSIS baten bidez indarreratu du proiektua UPNk. Aldaketa, beraz, Foru Gobernuan gertatzea ere beharrezkoa da.

Eraikitzaile diruzaleek badakite nor bozkatu. Baita hiri eta lurralde buruaskeagoak eta sozioekonomikoki justuagoak aldarrikatzen dituztenek ere. •



Ilustrazioa: Unai FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Aurreakordioaren zain egon gabe

Euskal Herrian egiturazko aldaketa politikoak azkartzeko bi arazo edo oztupo ageri dira une honetan. Ez dira bakarrak, jakina, baina modu nabarmenean ari dira azaltzen azken aldian: alde batetik, Estatuaren itxikeria, ez baita posible harekin inolako prozesurik adostea, eta beste batetik, EAJren denbora irabazteko jokabidea, ez baitu urrats sendoak ekar ditzakeen akordiorik itxi nahi.

Estatuaren posizioaren nondik norakoa eta zergatia jakinak dira. Ez du Euskal Herrian aurkezteko eskaintza politiko erakargarriarik eta konponbidearen arloan –dela gatazkaren muinari dela gatazkaren ondorioei lotuta– edozein mugimenduk burujabetza prozesua indartuko zukeela uste du.

EAJren jokabidean badira hauteskunde une zehatz honi lotutako arrazoiak. Erakundeen kudeaketa du lehentasun. Gaur egun, inoiz ez bezala, beste estatus politiko bat –erabakitze eskubidea oinarri lukeena– lortzeko gehiengo zabalak osatu daitezke erakundeetan, baina aukera horri ez dio begiratu ere egin nahi EAJk, PSEren edota PPren babesarekin botere instituzionala eskuratzeko bidea lehenetsita. Merke izan dezake horien laguntza, adibidez, Gipuzkoan eta Donostian.

Unean uneko hauteskunde interesetik harago, beste ibilbide bat irudikatzeko jeltxoen ezintasuna dugu gaur egungo jokabide hori azaltzeko arrazoi nagusia. Katalunian, aitzitik, CiUk beste bide bat egitera behartuta ikusi du bere burua, Estatuarekin harremana jasangaitza delako eta emandako tarteko irtenbidea, Estatutaren erreforma, erabat etsigarria izan zelako. EAJk, ordea, egungo egitura juridiko-politikoaren erabat agortuta dagoela jakin arren, Gernikako Estatututik eratorritako erakundeak gordeleku ditu, Katalunian ez dagoen Kontzertu Ekonomikoa nahiko helduleku delakoan. Nahiago du portu txiki horretan segi itsaso handira irten baino, Espainiako hurrengo gobernuarekin kaiko amarratze baldintzak hobetzeko tartea txikia izango dela jakinda ere. Denbora behar du, eta horrela ulertu behar da Sorturekin duen harremana ere. Estatuak ito egiten du eta ez litzateke ulertuko beste aterik «zabalik» ez izatea, baina urratsik egiteko adore nahikorik ez du. Oraingoz, bederen.

Horrenbestez, aldaketak ez dira, berez, horrelako aurreakordioaren bitartez helduko. Ez dira abiarazitako eta aurrera eraman beharreko prozesu politikoaren abiapuntua izan, bistan da. Estatuak konponbiderako borondatearik ez du, eta EAJk ere ez du epe laburrean beste bide bat seriozki saiatzeko asmorik, adierazpenak baino harago. Gasteizko Legebiltzarreko aste honetako saioa aski adierazgarria izan da.

Aldaketa egin nahi dutenak bati –Estatuari– edo beste ari –bideari ekiteko erabakia hartu ez dutenei– itxaroten geratzeak ez luke zentzurik; akordiorako proposamenak, tartekoak zein azken burukoak, elkarlan eskaintzak, behin behinekoak zein iraunkorrak, eta elkarriketa eremuak, akordio politikoetarako edo gatazkaren ondorioen konponbiderako, irekita izanda ere. Are gehiago, burujabetza prozesuaren alde indarrak metatzeak indartuko du noizbait adostasunaren aukera sortzea ere. Areago, halako

EAJk nahiago du portu txiki horretan segi itsaso handira irtetea baino, Espainiako hurrengo gobernuarekin kaiko amarratze baldintzak hobetzeko tartea txikia izango dela jakinda ere

prozesu batek gailurra jota, mugitu nahi ez duena edo inobilismoari lotuta dagoena akordiorako ere garaiz ez iristea eragin ahalko luke. Aldaketa nahi dutenen eremuan, norberak egiten duena izango da gakoa. Aldebakartasunak segitzen du lanabes izaten.

Norabide horretan, egoera baldintzatzeko gai izango diren urrats gehiago egin beharko dituzte beste egoera bat erdietsi nahi dutenek, egindakoa errepikatze hutsak ez baitu ezer berririk ekarriko. Eta gogoeta hori eremu eta arlo guztiei dagokie.

Maiatzaren Lehenengoa izan zen atzo. Aldaketa politiko eta soziala langileen eta herri sektoreen onurako da eta, beraz, sindikatuek badute zer esan datozen urteetan aldaketa hori lortzeko masa kritikoa egituratu nahi bada. Protesta hutsera mugatzea botereak bere horretan segituko duela ontzat ematea bihur daiteke, nahi gabe ere. •

EMAKUMEAK ETA KIROLA

Berdintasunaren partida orekatu ezinda

 **KIROLA** / Mikel IBARGOEN

Emakume kirolarien egoera gaur egungo gizartearen isla baino ez da, non gizonezkoak nagusi baitiren arlorik gehienetan. Emakume kirolarien jarduna gizonenaren itzalpean geratzen da, zenbait kasutan, baita ahanzturan ere. Alabaina, ez da abian jartzen egoera hori iraultzeko mekanismo eraginkorrik, nahiz eta emakumeek sobera meritu egin. Beraz, desoreka horri golik sartu ezinda darraite eta partida berdintzetik oso urrun daude.

Berdintasuna, ekitate, aurrerapau-soak eta antzeko esanahia duten hitzen aldarria egiten da nonahi eta noiznahi 2015 honetan. Kontzeptu horiek egikaritzeko garaia heltzen denean, ordea, kontuak oso bestelakoak dira, eta pausu hutsalak, besterik ez da begiztatzen. Alegia, esana eta izana ez doaz eskutik. Hori da, hain zuzen, emakume kirolariek gertatzen dena. Gizon kiro-

lariek hedabideetan duten presentziarekin alderatuta, hutsaren hurrengoa balira bezala tratatzen dituzte, eta hori agerian uzten du Lakuako Gobernuak Kirol Zuzendaritzak duela bi hilabete pasatxo argitaratu zuen ikerketak. Ikerketa horrek lau astez 10 egunkariren kirol albisteak aztertu zituen eta azalera-turiko emaitzak guztiz ziren argigarriak: kirol albisteetatik %8,56 baino ez dira emakumeen jardunari buruzkoak eta soilik emakumeei buruz aritzen

diren berriak ez dira %5era iristen. Ondorengo da Jon Redondoren (Lakuako Kirol Zuzendaria) ondorioa: «Hedabideek ez dute islatzen emakumeek egiten duten kirolaren kalitatea ezta kantitatea ere». Iraia Iturregik (Athleticeko kapitaina) bat egiten du balorazio horrekin: «Penagarria da egoera. Emakumeen kirolak sekulako gorakada izan du azken urteetan baina hedabideetan dugun presentzia ez da hazi neurri berean, eta hori ez da logikoa». Modu berean mintzatu da Ainhua Azurmediere (Psikologoa eta Kirol aholkularia): «Kirola egungo gizartearen isla da eta bertan ikusten da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak zernolakoak diren. Gaur egun batzuek eta besteek dituzten baliabideetan eta presentzian sekulako aldea dago eta horrekin apurtu egin behar da».

ZERGATIK?

Urtebete atzera ere azterketa berbera egin zuen Gasteizko Gobernuak (astebeteko laginarekin) eta, egiari zor, emakumeen presentzia %3 igo da epe horretan. Dena den, igoera ez da nahikoa inondik ere, eta egoera parekidetasunetik oso urrun dago gaur-gaurkoz. Zentzu horretan, ondorengo da jende askok egiten duen galdera: zergatik? Alegia, nola da posible XXI. mendean batzuen eta besteen arteko desoreka hain handia izatea? Korapiloa askatzea ez da batere erraza, baina gizon eta emakume kirolariek duten mailaren arteko desberdintasuna eta errentagarritasuna erabiltzen dira argudio nagusitzat. Hau da, hedabideek, negozio iturri diren neurrian, jendearen eskaerei erantzun behar dietela diote hedabideetako ordezkariak eta, zentzu horretan, gizarteak askoz interes handiagoa duela gizonezkoek praktikatzeko dituzten kirolen gainean.

Bide hori jarraitu dute Iñaki de Mujikaren (Onda Vascako kirol zuzendaria) azalpenek: «Kontuan hartu behar den lehen gauza da kirolaren eragina gizartearen, eta haren eraginkortasuna publizitatean. Hau da,



Eli Pinedok, Bera Bera taldean diharduen amurrioarrak, bide luzea egina du kirolaren munduan. Baikorra da, eskubaloian, gutxienez, emakume erreferenteak sortzen ari direlako. «Nik gaztaroan ez nuen emakumezko erreferenterik», esan du. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

nik saio bat egitean ahalik eta jende gehienak entzutea lortu behar dut saioa errentagarria izan dadin. Gipuzkoako jendeak futbola eta Realak eskatzen du, eta, hori ematen ez badiot, entzuleak galtzen ditut. Nik errespetu handia diet emakumeei, baina beraien eragina oso txikia da. Nik kirol munduan gertatzen den guztia adi jarraitu behar dut, merezi duten tarteak eta balorea eman behar diet emakumeei, baina hori ezinbestean daukagun testuinguruan sartu behar dut. Gustatu edo ez, hori da gure egoera eta errealitate hori ahalik eta orekatuen egiten saiatzen gara, baina ez da erraza. Etekinik lortu beharra izango ez banu, nire saioak beste ikuspuntu batetik landuko nituzke seguruena, baina...». Halaber, berdintasun ezaren errua ez dela kirolarena dio de Mujikak, bai zik eta gizarte osoarena: «Berdintasuna dagoen toki bakarria eskelak dira, hortik aurrera, inon ez».

«NESKA POLITAK IKUSTERA?»

Oscar Badalloren (Marca) ustez, gakoa emakumeen gaineko informazioa kontsumitzeko ohitura faltan dago eta hori da aldatu behar dena. Bestalde, gizartea egungo egoerak eskatzen duenaren oso atzetik dagoela dio, eta eman du horren inguruko adibide esanguratsurik: «Ni askotan joaten naiz Donostiako emakumezkoen partidak ikustera eta ea neska politak dauden ikustera noan galdetu izan didate. Anoetara joaten diren 5.000 emakumeak futbola ikustera doazela, aldiz, ez du inork ezbaian jartzen. 2015 urtean horrelako komentarioak entzun behar izatea ikaragarria da, eta komentario horiek emakumeek egiten dizkidate askotan, gainera. Horrela zaila da aurrera egitea». Emakumeen kirolaren jarraitzaile izanik, termometro egokia izan daiteke Badallo haien mailaren gainean hausnartzeko, eta berak argi du emakumeek mailarik ez dutenaren argudioa zaharkituta geratu dela: «Gipuzkoan zehazki sekulako maila dugu. Lau talde ditugu



Iraia Iturregi, Athleticeko kapitaina, Realaren kontrako partida batean.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

kirol desberdinetan lehen mailan: futboleak, Realak; eskubaloian, Bera Bera; saskibaloian, Gipuzkoa EHU; eta, hockeyan, Realak. Eta banako kiroletan beste hainbeste. Nik argi daukat emakumeek ikusleak erakartzeko maila dutela. Horretaz jabetzeko, Bera Bera ikustera joatea besterik ez dago. Gizonen indarra izan ez arren, teknikoki maila altua dute eta gauza ikusgarriak egiten dituzte. Futboleak ere aurrerapauso handiak eman dira, baita beste kiroletan ere», kontatu du.

Bestalde, Redondok gogorazi du Londresko Joko Olinpikoen dominak eskuratu zuten euskaldun guztiak emakumezkoak izan zirela eta horrek erakusten duela emakumeen maila zein den. Eli Pinedok (Bera Bera) ere irmo defendatzen du tesi hori eta kirola gustatzen zaien pertsonak eta kirolaz ulertzen dutenak horren jakitun direla dio: «Emakumeek badugu maila jendea erakartzeko eta ikuskizuna emateko. Gure partidak eman dituztenean hori agerian geratu da, jende askok ikusi dituelako. Hala eta guztiz ere, oso gutxitan ematen dituzte eta aukera bat

eman behar zaigu egoera aldatzeko».

Hari horri tiraka, Jabi Oterminek (Bera Berako prentsa arduraduna) datu esanguratsua eskaini du: «Gure Kopako finala Teledeportek eman zuen eta 100.000 pertsonak ikusi zuten. Realak egun berean jokatu zuen Sevillaren aurka eta 160.000 ikusle izan zituen. Datuak ikusita eta beste kirola futbola dela eta partida erakargarri bat dela kontuan hartuta, aldea ez zait hain handia iruditzen, nahiz eta futbola ordainpeko kate batean izan. Horrez gain, kontuan hartu behar da gure partida ez zutela ia inon iragarri, eta futbola, berriz, bai. Beraz, emakumeek ere jendea erakar dezaketela argi dago».

KALITATEZ INFORMATZEA

Zenbakiak eta azterketek erakusten dituzten datu hotz eta kuantitatiboez aparte, badago zer hausnartua aspektu kualitatiboei buruz. Izan ere, gizonen presentzia eguneroko jardunari lotuta dagoela eta emakumezkoena, osterak, emaitzei lotuta dagoela kontu jakina den arren, agertzen den informazio urrian

ere badago desberdintasunik tratatzen. Gizonen gaineko informazioak, oro har, kirol arloa mugatzen dira; emakumezkoen kasuan, bestelako alor batzuei ere erreferentzia egin ohi zaie. Esate baterako, emakume kirolarien gorputzaren erabilera merkantilista egiten da batzuetan. Zentzu horretan, ohikoak dira apaintasuna, feminitatea edo kutsu paternalistako adierazpenak. Horrelako kasuen berri ederki du Azurmendik eta kritika gogorra egiten du jokaraz horiek onartezinak direla ozen esanez: «Objektu sexual moduan erabiltzen dira batzuetan emakume kirolariak eta horrekin apurtu egin behar da. Emakumeen edertasunak ez du albiste izan behar eta kalek jantzita ere ez dira agertu behar. Kirolariz jantzita agertzea garrantzitsua da erreferente moduan agertzeko gainerako emakumeentzat». Horrelako tratamenduak saiheste aldera, kazetari bakoitzak duen erantzukizuna nabarmendu du: «Genero ikuspegirik ez duen kazetari batek burura etortzen zaion lehen gauza idatziko du emakumeen gainean, ustez berdintasunez

tratatzeko ari den sentipenarekin. Sentsibiltatea duenak, ordea, desberdintasun egoera batean gaudela dakienez, ez du hanka sartu nahi eta eman beharreko enfokearen gainean hausnartu egiten du».

Beraz, aipaturiko jokaraz ekiditea eta emakumeen kirola hedabideetan kalitatez agertzea ezinbestekoa da, besteak beste, babesleak, ikusleak eta bestelako diru sarrera batzuk erakartzeko, eta, neurri berean, emakume kirolariak profesional bihurtzea lortzeko. Halaber, kalitatez informatzea funtsezkoa da erreferenteak sortzeko. Hori lortuta, errazagoa izango da neskek kirola normaltasunez ikustea, baita, haiengan kirolaren jarduteko eta aurrera egiteko nahia eta gosea sortzea ere. Izan ere, ume guztiek izaten dute pertsonaren bat ispilu moduan eta kirola gustuko duten neska gazteek emakume kirolari erreferenteak izatea garrantzitsua da, haiek ere beraien ametsak gauza ditzaketela ikus dezaten. Arreta berezia eskaintzen dio Redondok puntu horri: «Erreferenteak dauden heinean, emakumeen presentzia handiagoa da bai hedabideetan, baita horiek ikustera joaten den ikusle kopurua ere. Eta neska gazteentzat hori ezinbestekoa da».

Iturregiarentzat ere erreferentea oinarri-oinarrizko kontu bat da, eta, ondorioz, tentuz landu behar dena: «Gazteak garenan beti izan nahi dugu Aduriz edo Gurpegi, eta beraiek iritsi diren lekura iritsi. Neska txikiak, berriz, oso zail dute emakumezko erreferenteak edukitzea, oso gutxi agertzen garelako, eta hori oso garrantzitsua da haiek ere ikusteko Athleticen joka dezaketela eta profesionalak izan daitezkeela».

Oraindik ere urrats asko emateko dauden arren, Pinedok nabaritzen du aldaketa bat, eta, pixkanaka, egoera gero eta hobea eta orekatuagoa izango dela sinestuta dago: «Londresko Joko Olinpikoak jokatu nituenetik partida askotan geratu behar izaten dut jendearekin argazkiak ateratzera, eta gutxinaka



emakume erreferenteak sortzen ari dira eskubaloian behintzat. Beraz, aurrerantz goazela esango nuke eta hori oso garrantzitsua da. Nik gaztaroan ez nuen emakumezko erreferenterik».

INFORMAZIOA SALTZEKO ZAILTASUNAK

Kazetaritzaren ohiko funtzionamenduari jarraituz, gizon kirolarien informazioaren atzetik joaten dira kazetariak, baina emakumezkoen kasuan, berриз, alderantzizkoa gertatzen da, zita garrantzitsu batzuk (finalak...) aparte utzita: «Beste batzuek kazetariak atzetik ibiltzen dituzte eta albistea ez dagoen tokitik ere albistea sortzen dute. Hori, ordea, ez da gure kasua. Gu gara edukiak sortzen ditugunak. Saiatzen gara kandela pizturik mantentzen, baina ez da erraza», azaldu du Oterminek. Errealitate horren jakitun, hedabideetan tarte lortzeko argi dauka bestelako erraztasun batzuk eman behar dituztela, eta bide horretan gauza asko hartu behar dituzte kontuan puzzlea osatu eta helburua lortzeko: «Adibidez, prentsaurreko bat antolatzekeo besteek aintzat hartzen ez dituzten gauza batzuk

kontuan hartu behar ditugu eguna eta orduak zehazteko garaian; izan ere, gizezkoen futbola eta saskibaloiarekin batera jarritz gero, lekua egitea oso zaila da».

HEDABIDE PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA

Hedabide guztiek izan beharko lukete ardura eta sentsibilizaio handiagoa gai honen inguruan, baina zalantzarik ez da hedabide publikoen erantzukizuna are nabarmenagoa dela, haiek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eskaintzeko beteharra dute eta. Eusko Jaurlaritzak gauzatutako ikerketak egunkariak soilik aztertu zituen arren, Jon Redondo seguru dago ikerketa ikus-entzunezko hedabideetan egin izan balute, emaitza berbera izango zela, baita EITB kontuan hartuta ere. Gauzak horrela, EITBri gehiago eskatu behar zaiola aitortzen du: «Zerbitzu publiko bat izanik, erantzukizun handiagoa du. EITBk gehiago bultzatu beharko luke emakumeen kirola ikusle kopuruei horrenbesteko jaramonik egin gabe».

Oraindik ere zorrotzagoa izan da Azurmendiren kritika: «Lo-

tsagarria da. Hedabide publikoetan ezin da horrelakorik onartu. Hedabide publikoek konpromiso morala eta soziala dute, baita legala ere. EAEko legediak gizonen eta emakumeen presentziak orekatua izan behar duela dio, eta, hori hala izan dadin, erabakitze guneetan pausak eman behar dira hori bermatzeko. Arazoa da berdintasun legea betetzen ez bada, ez dela ezer pasatzen, eta hori ezin da horrela izan».

Mikel Olazabalek (ETBko kirolletako zuzendaria) eta Txetxu Urbietak (Euskadi Irratiko kirolletako zuzendaria) argi dute, hedabide publikoen gidari diren

Emakumeen kirola hedabideetan kalitatez agertzea ezinbestekoa da emakume kirolarien profesionalizaioa lortzeko. Goiko irudian, Donibaneko nesken trainerua lehian. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Iñaki de Mujika, Onda Vascako kirol zuzendaria: «Berdintasun ezaren errua ez da kirolarena, gizartearena baizik. Berdintasuna dagoen toki bakarra eskelak dira»

Iraia Iturregi: «Hedabide publikoek ez digute behar adina tarte eskaintzen. Azken denboraldietan liga eta kopa irabazteko lehian ibili gara eta ETBk oso partida gutxi eman ditu»

heinean, hedabide pribatuek ez bezalako betebeharrak dituztela eta horiei erantzuten saiatzen direla diote. «Nik uste dut EITBk lan ona egiten duela eta sentsibilizazio handia dugula emakume kirolariekiko. Egia da gehiago egin daitekeela, baina bide egokia daramagula esango nuke», zehaztu du Urbietak.

Ez da hori, ordea, Iturregik eta Pinedok duten sentsazioa: «Bertako hedabide publikoek ez digute behar adinako tarterik eskaintzen. Azken denboraldietan beti egon gara liga eta kopa irabazteko borrokan eta ETBk oso partida gutxi eman ditu, urtean behin edo, eta hor erakundeek esku hartu beharko lukete. Informatiboetan ere berdin. Txapelketak irabazi dituzten emakume piloa dugu, eta agertzen badira, 10 segundo eta kito. Hala ere, egia da Euskadi Irratitik astero deitzen digutela, baina ez du hedadura bera eta telebistan agertzea ezinbestekoa da», azaldu du Iturregik.

Pinedoren iritzia ere antzekoa da: «ETBn apenas egiten diguten erreferentziarik albistegietan, eta gure partida oso gutxi ematen dituzte. Esaterako, iragan urtean, Txapeldunen Liga jokatu genuen eta gure klubak ordaindu egin behar izan zuen, partida ETBn emateko. Diru gutxi daukagu eta gainera telebistan emateko ordaindu egin behar dugu, ez du zentzurik».

«GIZARTEAK ESKATZEN DUENA»

Olazabalek onartzen du orekarik ez dagoela, nahiz eta emakumeen presentzia gero eta handiagoa dela nabarmendu: «Guk gizarteak eskatzen duenari erantzun bat eman nahi diogu eta gizarteak emakumeek eta gizonak osatzen dugu. Beraz, gizarteak zia boga bat eskatzen badigu, emango dugu. Hala ere, zuk saio bat egiten baduzu eta inork ikusten ez badu, kendu edo aldatu egin beharko duzu, eta gauza horiek ere kontuan eduki behar dira». Emakumeek ETBn duten presentziaren inguruan ere datu batzuk eman ditu: «Guk, telebista pribatuekin alderatuta, arreta handiagoa eskaintzen diegu emakumei: ur-

tean 800 bat albiste informatiboetan, 45 emanaldi zuzenean edo diferituan eta, Zu kirolari saioan, 75 erreportaje inguru. Beraz, estaldura eskaintzen da, baina, gizonei buruzkoekin alderatuta egia da txikia dela». Hala-ber, gaineratzen du alor publikoak emakume kirolariei hasierako laguntza eta bultzada zor diela, baina, era berean, beste irizpide batzuk ere kontuan hartu behar dituztela, eta ikuslea erakartzeko beharra ere mahai gainean jarri du. Irizpide hori argi azaleratzen da, esate baterako, futboleko. Izan ere, as-tero 2.B mailako partidak eskaintzen dituzte, emakumezkoen lehen mailan bi talde (Athletic eta Real) izanda.

Euskadi Irratira bueltatuta, Urbietak ez du uste, futbola aparte utzita, desoreka oso nabarmena denik. Hala ere, bat egiten du Olazabalen hausnarketa batzuekin: «Banakako kirol-letan lorpenak eskuratzen dituzten kirolariei tarte bera eskaintzen diegu, gizon edo emakume izan. Nor ageri da gehiago atletismoan Naroa Agirre edo Mikel Odriozola? Eta, piraguismoan, Maialen Chourrart edo Ander Elozegi? Hori zailagoa da taldekako kirol-letan. Realaren gizonezko eta emakumezko taldeei jarraipen berdina egin behar zaie Anoeta betetzen denean eta Zubietara 200 pertsona joaten direnean? Bai, emakumei lagundu egin behar zaie, baina gauza horiek ere kontuan hartuta. Komunikabide publikoak emakumei tarte eskaini behar diegu eta babestu egin behar ditugu, baina kontuan hartu behar dugu entzule batzuentzat ari garela lanean eta irizpide hori edukitzea logikoa dela uste dut. Guk saioa areto futboleko neskei buruz hitz eginez bat irekitzen badugu, hurrengo egunean zenbat pertson-ek entzungo gaituzte? Ba, seguruenik, askoz gutxiagok, eta, gustatu edo ez, hori da dauka-guna».

BENETAKO APOSTU BATEN BEHARRA

Hauxe da egungo errealtatearen argazkia; alderantzizkatzea gizarte osoaren eskutik etorri



Irudian, Realeko hockey taldea partida betean. Kirol hau tarteka agertzen da komunikabideetan, tarteka eta kirol balentriaren bat dela medio. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

behar da. Hori gauzatu dadin, ezinbesteko baldintzak dira nahia, gogoia eta sentsibilizazioa: «Aldaketa ez da bere horretan gertatuko, aldaketa eragin egin behar da, aldaketa proposamen global batez bidez. Horretarako, berdintasunari buruz egin behar dugu gogoia, horretara iristeko egin beharrekoak zehaztuta», dio Azurmendik.

Bide horretan, hausnarketa gizarte osoarena izan behar da. Izan ere, oraindik asko dago egiteke. Honako adibide hau aipatzen du Redondok: «Astebukaera batean gertatu zen ostiral batean Realaren liga partida izatea, eta larunbatean Bera Berak Europako txapelketa. Anoetara 25.000 pertsona joan ziren behar zena ordainduz, eta Bera Berako partidara (5 euro kostata) 300 pertsona. Beraz, hedabideen jarreraz gain, gauza asko aldatu behar dira eta, horretarako, gutariko bakoitzak eman behar du urrats bat».

Badalok, berriz, beste hau jarri du mahai gainean: «Nik beti salatzen dut emakumeen kirola jarraitzen ez duten lehenengoak emakumeak eurak direla eta euren dagokie lehen bultzada ema-

tea. Realaren bazkideetatik 5.000 inguru emakumezkoak dira, baina ez dira Zubietara joaten emakumeen partidak ikustera. Kirola praktikatzeko duen emakume mordo dago, baina haiek ere ez dituzte beste emakumezkoak ikusten eta hori da arazoaren muinetako bat».

Hedabideen bultzada eta hauspoa ere oso garrantzitsua da, baina, oraingoz, «Infozazpi» irratia baino ez du izan benetako apustu bat egiteko ausardia. Bertan, astelehenero ematen dute Kirol Leihua, oso-osorik Euskal Herriko emakume kirolariei eskainia: «Berdintasunik ez dagoenez, beharrezkoa da Kirol Leihua

bezalako saio bat eta erabat justifikatuta dago. Diskriminazio positiboko ekintza bat da, hain zuzen, berdintasuna lortzea helburu duena. Hobe litzateke horrelakorik behar ez izatea, baina tamalez hori ez da egoera», azaldu du Azurmendik. Iritzi berekoak dira Iturregi, Pinedo eta Redondo.

Gauzak horrela, norabide horretan lan egitea ezinbestekoa da distantzia murrizten joateko, eta hedabide indartsu batek benetako apustu sendo bat egitea mugarri izan liteke: «Aintzane Encinas (Real) 'Marca'n astero zutabe bat idazten hasi zenean 'Onda Cero' eta 'Radio San Sebastian' ere astero Realeko jokalariei bat elkarrizketatzen hasi ziren, eta Encinasek idazteari utzi zionean, besteek ere tarte hori kendu zuten», kontatu du Badalok.

Beraz, litekeena da, apustua egin eta jarraipena emanez gero fruituak ematea, eta gainontze-koek, neurri batean, behintzat, horri jarraitzea. Hori bai, apustua benetakoa eta konbentzimenduz egindakoa izan behar da, estrategia eta helburua ondo zehaztuta. Baina, egin, egin behar da.

Mikel Olazabal, ETBko kirol zuzendaria: «Guk gizarteak eskatzen duenari erantzun bat eman behar diogu. Gizarteak ziaboga bat eskatzen badigu, emango dugu»

«Ikuslea erakartzeko beharra» irizpidea maiz agertzen da. ETBk gizonezkoen 2.B mailako partidak eskaintzen ditu astero; Athletic eta Real emakumezkoen lehen mailan egonda



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Argazkiak: GREFA

Lursaguaren eta belatzaren alegia

Nekazaritza intentsifikatzearen ondorioz, lurren mekanizazioa galarazten zuten tarteko traba guztiak (zuhaitzak, heskaiak...) kentzea izan da joera. Logika bera jarraituz, monolaborantza urtez urte errepikatzearen eskutik etorri da pozoi kimikoen erabilera geroz eta handiagoa. Testuinguru horre-

tan, hegaztien populazioek beherakada nabarmena izan dute Europa osoan. Alde batetik, lursailen kontzentrazioa erraztu asmoz zuhaitz zahar eta eskaiak kenduta, hegazti askoren bizitoki eta janleku ugari ere galdu dira. Bestalde, pozoien erabilerak, hegaztietan hilkortasun zuzena eragiteaz aparte, umaldietan eragina duela gauza jakina da, besteak beste, arrautzen oskola behar bezain gogorra ez izatea eragiten dutelako, txitak jaio baino lehen hiltzea ekarritik.

Nekazaritza eredu kimiko-intentsibo horrek badu zeharkako beste eragin bat; alegia, hegaztien elikadura-iturriak (intsektuak, harrak, karraskariak...) hiltzen dituela, hegaztien biziraupenari mehatxu eginez. Bioaniztasuna galtzeak zenbait espezie gainerakoei nagusitzea da-

kar eta horri, nekazaritzan, izurrite esaten zaio.

LURSAGUAK ETA HARRAPARIAK, KUDEAKETA OKER BATEN ADIBIDE ESANGURATSUA

Nekazaritza jarduera eta bioaniztasuna zein neurritan elkarlotuta dauden erakusten duen adibide bat landa-lursaguaren izurria da. Lehorreko laboreetara ureztapena eramatearekin batera, Gaztelako mendi-larre hezeetan oso ohikoa den espezie horrek haranetako nekazaritza-lurretara egin zuen migrazioa. Harraparien populazioak oso gutxituta zeudenez, lursaguak segituan izurri bilakatu ziren, laboreetan kalteak sortuz. Honi aurre egiteko, 2007-2012 epean administrazio ezberdinek bi jokabide adostu zituzten: alde batetik, errodentizidak

erabiltzea; bestetik, lursailen bazterretan zeuden eskaiak erretzea.

Pozoia erabiltzeak ez zuen zentzu handirik. Lursagu populazioen dinamika naturalean, boom ziklikoak ematen dira, gero, janaria lortzeko lehia areagotzean edota gaixotasunak agertzean, modu naturalean berriz ere orekatzen direnak. Hau da, berdin da pozoia bota ala ez, lursagu izurriaren kolapsoa gertatuko da negua hurbiltzean. Harrapariak daudenean, kolapso hau azkarrago ematen da, eta lursagu populazioa ez da hainbeste igotzen, izurri ziklikoak desagertuz. Haatik, pozoia eraginez kalterik handiena harrapariak jasan zuten, hildako lursaguak jan ez pozoitu zirelako. Eskaiak erretzearen eragina, aldiz, hutsaren hurrengoa izan zen, lursagui dagokionez, lurpeko tuneletan babes baitaitezke. Aldiz, erreketarekin kalteak sortu zizkieten gainontzeko espezieei, harrapariei, tartean.

Bitartean, zenbait elkartek (GREFA-CSIC-UVA) lursaguen kontrolerako ekimen esperimental bat jarri zuten martxan, kontrol biologikoa (habia-kutxen ezartzea) eta nekazaritzako jardunbide egokietan oinarrituta. Erroditizida eta erreketen bidez trataturiko gunetan ez bezala, eremu esperimental hauetan lursaguen zikloak kontrolatzea lortu dute eta, bide batez, bertako hegazti harraparien eta beste espezie askoren ugartasun eta aniztasuna handitu egin da.

Gaztelako esperientzia ezagututa, bista-koa da irtenbiderik gomendagarriena dela harrapariak gure lursailak erakartzeko teknikak indarrean jartzea. Baina, harrapariekin, bada zaindu beharreko beste kontu bat: jadanik etxe inguruan badauzkagu, harrapariak uxatu edota kalte-tuko dituen esku-hartzerik ez egitea.

HARRAPARIEN GARRANTZIA ETA HAUEK MANTENTZEKO BEHARRA

Harrapari-espezie ezberdinek giza-eraikinak aukeratzen dituzte habia jartzeko. Hontz zuria da adibide garbiena: izan kanpandorreak, izan ganbarak, gizakia-rengandik gertu bizitzea gustuko du hegazti honek. Hontza bat inguruan daukan baserritarra pozik egoteko moduan dago: egunero, 5 karraskari jaten ditu. Bikote batek, aldiz, 15.000 karraskari ehizatu ditzake urte bakarrean. Hontzek umaldi bat baino gehiago izan dezakete, eta horretan eragin handia du karraskarien populazioaren egoerak: umaldiak karraskari nahikoa dagoenean soilik egiten ditu.

Hontza baten bizitoki den eraikina berritzerakoan neurriak ez badira hartzen, ordea, litekeena da hegaztia hiltzea (irte-



era eta sarrerak tapatu zaizkiolako), edota betiko uxatzea. Hau ez gertatzeko, lehenik eta behin hontzari habi-kutxa bat ipini beharko litzaioke eremu hurbilean, alternatiba gisa. Ondoren, eraikinetik uxatu, hatzamarrak gurutzatu guk jarritako habi-kutxan gelditu dadin, eta, azkenik, eraikina berritu. Eraikina berritzeko garaian, gainera, modu erraz eta merkeak daude fauna erakartzeko egiturak integratzeko. Hau belatz gorriarengatik ere esan daiteke, ehiztari trebe honek askotan eraikinak aukeratzen baititu habia egiteko. Gainera, habi-kutxak oso ondo onartzen ditu. Belatz gorriek ez dute hontzek bezainbeste ehizatzen, baina, hala ere, belatz bikote bat aliatu garrantzitsua da nekazariarentzat, 3.000 karraskari ehizatzen baititu urtean.

Hortaz, agerikoa da harraparien garrantzia karraskarien kontrolean. Aipatu dugu landako eraikinak tentuz berritu behar direla hontzak edota belatzak ez kaltetzeko. Horrezaz gain, badaude beste esku-hartze mota batzuk harraparien presentzia errazteko. Habi-kutxak jartzea da horietako bat. Espezie bakoitzarentzat egokitutako habi-kutxa mota ezberdinak daude, eta erraza da hauek eraikitze planoak eskuratzea. Landa eremuetan zutoin altuak jartzen baditugu, harrapariak behatoki gisa erabiliko dituzte eta inguruko karraskariak ehizatuko dituzte.

Basoetan adin ezberdineko zuhaitzak egotea garrantzitsua da, zenbait harrapari (mozolua, urubia edo apo-hontza, kasu) zuhaitz zaharretako zuloetan egiten baitituzte habiak. Era berean, landa eremuetan tartekatutako zuhaitzak ere interesgarriak dira harraparien behatoki edo habi egiteko gune gisa. Batzuetan, zuhaitz-belatza edo hontza ertaina bezalako harrapariak korbidoek aldeztu aurretik eraikitako habiak erabiltzen dituzte. Bele mota ezberdinek zenbait lekutan duten "ospe txarra" dela eta, ohikoa izaten da beraien habiak tirokatzea. Ekintza horrek ez du ez hanka ez buru, aliatu bat suntsitzea ere ekar baitezake, tartean harraparien bat badago. Azkenik, zereala nagusi den eremuetan oso garrantzitsua da umaldiak lurrean egiten dituzten mirotz urdin zein zurien habiak bilatu eta txitek hegan egin arte bere horretan uztea, eta uzta jasotzeko itxarotea. Bi espezie horiek, egunean 2 eta 10 karraskari artean jateko gai dira.

** Azaitz Unanue ornitologoarekin batera egindako testua.*

ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

BALEAK EHIZATZERA JOAN, BAINA BERAIEK HARRAPATU ZITUZTEN

Nagore Belastegi Martin

«Espainolen hilketa» deitu izan zaio 1615ean Holmavik herrian gertatutakoari. Baina soberan dakigu bertan hil zituzten baleazaleak euskaldunak zirela. Gertaera hori gogoratzeko, ezagutzera emateko eta egian azaleratzeko kongresua antolatu zuten Islandian. Hona hemen abentura triste ezezaguna.

Aste honetan iritsi zaigu berria; Islandia-ko mendebaldeko fiordoetan euskaldunak hiltzea debekatu dute. Bizitzeko eskubideak inplizituki dakar debeku hori, baina keinu sinboliko horren bidez Islandia eta Euskal Herriaren arteko adiskidetasuna adierazi nahi izan dute. Irribarre bat ateratzen digun albiste harrigarri honek, anekdota bat besterik ez denak, badauka atzean istorio bortitz eta triste bat gurean oso ezaguna ez dena: 1615ean Holmavik herrian 32 euskal baleazale hil zituzten.

Euskal baleazaleak, norvegiarrekin batera, historiako lehenengo balea ehiztariak izan ziren eta horregatik ez da arraroa ahal izan zuten itsasertz guztietara iristea. Ternuan egindako lana ezaguna da; izan ere, bertako eremu batean hainbat eta hainbat euskaldun gelditu ziren bizitzten euskal kolonia txiki bat osatu eta bertakoekin nahastuz. 1550 eta 1570 urteen artean, euskal marinelek Ternuan 30 itsasontziz osatutako flota zuten, non bi milatik gora marinelek egiten baitzuten lan. Horiek, urtean 400 balea inguru ehizatzen omen zituzten. Hala, flotaren handiaz baliatuz, Islandiara ere iritsi ziren.

Sumendien irlan gertatutako abentura hori ekartzen digu testu honek. 1615ean Islandia Danimarkako koroaren menpe zegoen, baina honek ez zuen lurralde osoa kontrolatzeko gaitasunik. Hortaz, balea ehizaren monopolioa mantentzeko asmoz, lege bat ezarri zuen, beste inork ez zitzaie ehizatu.

Hala ere, ez zegoenez benetako kontrolik, Ögurko gobernadorea, Ari Magnusson, legez kanpoko lizentziak saltzen hasi zen etekina atera asmoz. Orduan, hiru itsasontzi gipuzkoar iritsi ziren Islandiako uretara eta baleak ehizatzeke zuten trebeziarekin ez zitzaieen gehiegi kostatu animaliak aurkitzea eta harrapatzea. Hala, dirutza atera zuten haragi hori eta baleetatik ateratako lehengaiak saldu ostean. «Tamalez, kanpainaren amaieran, ekaitz haizetsu handi batean hondoratu ziren hiru itsasontziak. Horrek irakurketa politiko bat izan zuen: zer egiten dute euskaldunak hemen, eta zergatik ari dira baleak ehizatzen?», aipatu zuen Xabier Irujo historialari adituak.

Itsasontziak hondoratu zirenean, marinelak Holmavik herrian gelditu ziren bizitzten urtebetez, eta Pedro de Aguirre eta Esteban de Tellariaren barkuetako eskifaia etxera itzuli zen ondoren. Baina Martin de Villa-



Balea baten hezurak Islandiako kostaldean. Batzuetan hezur hauek erabili egiten dituzte, adibidez, kaleko mahaiaik eta aulkiak egiteko.
Iospek | THINKSTOCK

franca kapitainaren esanetara zeuden gizonak bertan gelditu ziren. Gertaera horrek Danimarkako koroaren arreta piztuko zuelakoan, eta bere ohorea garbitzeko asmoz, euskaldunak hiltzea agindu zuten. Erregeari leialtasuna erakutsi nahi zioten, legez kanpoko baimenak banatu izanaren errua kitatzeko. Horrez gain, urte horretan bertan lege berri bat ezarri zuten, atzerritar batek Islandian negua igarotzen bazuen, bera hiltzeko eskubidea zegoela zioena.

«Modu latz batean akatu zituzten; aizkorakadaz, desarmaturik zeudenean – kontatu zuen historialariak– behin hilda, gorpuak zatitu egin zituzten eta ez zituzten ehortzi. Gainera, ondasunak lapurtu zizkieten». Gertatutakoaren berri dugu Jon «Laerdi» Gudmunsson idazleari esker. Gobernadoreak eskatu omen zion, beste olerkari batzuei bezala, euskaldunen kontrako idazki bat egiteko, piratak zirela esateko, baina honek euskaldunen alde egin zuen benetan gertatu zena kontatuz. Berak aipatu zuenez, herritik ihes egin zuen ez zuelako erasoetan parte hartu nahi.

Hala ere, adituek uste dute Laerdik ez zuela biztanleengandik inolako presiorik jaso; hau da, berak idatzitakoarekin ados zeudela uste dute eta, beraz, olerka-

riak idatzi bezala, euskaldunek ez zutela ezer txarrik egin. Magnusson gobernadoreak, aldiz, mendeku hartu zuen berak agindutakoari kontra egiteagatik. Laerdi sorginkeriagatik salatu zuen, eta horrek ondorio latzak ekarri zizkion olerkariari.

Dirudienez, gainerako idazleetako batzuek gobernadoreek eskatutakoa idatzi zuten eta, horregatik, batzuetan euskaldunak errudunak zirela uste izan da.

Bestalde, esan izan da Gipuzkoako Biltzar Nagusiek hilketaren berri izan eta ezer egin ez zutela. Irujoren ustez, hori ez da guztiz egia. Izan ere, garai hartako oso dokumentazio gutxi dago. Gipuzkoak neurriren bat hartu izana frogatzen duen agiririk aurkitu ez izanak ez du esan nahi horrelakorik egin ez zuenik.

Historialariak zabaldu izan den beste ideia baten kontra egiten du gogor: XVII. mendea bortitza zela. «Garai hartan gauza horiek gertatzea arrunta zela zabaldu da. Uste dut inork ezin duela esan XVII. mendea XX. mendea baino bortitzagoa izan zenik, batez ere kontuan hartuta XX. mendean bi mundu gerrak eta holo-kaustoa gertatu zirela. Orain Armeniako genozidioak 100 urte bete ditu. Gizakia- ren historian inoiz ez da hainbeste jende hil XX. mendean bezala. Beraz, ezin du-



gu esan gauza horiek aspaldian gertatzen zirela, orain ere gertatzen direlako».

TEORIAK ARGITZEN

Pasa den astean Xabier Irujo Islandian izan zen Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin antolatutako kongresu ba-

tean. Horren baitan, euskaldunen hilketaren 400. urteurrena ospatu zuten, eta hitzaldi sorta bati esker, adituek gogoeta egin ahal izan zuten. Amaierako ekitaldia hunkigarria izan zen, eta oso adierazgarria, zendutako arrantzaleei omenaldia egin zitzaenez.

Gobernadoreak erregeari leialtasuna erakutsi nahi zion eta euskaldunak hiltzea agindu zuen. Horrez gain, lege berri bat ezarri zuen zeinen arabera atzerritar batek Islandian negua igarotzen bazuen, bera hiltzeko eskubidea zegoen

«Ezin da esan XVII. mendea XX. mendea baino bortitzagoa izan zenik. XX. mendean bi mundu gerrak, holokaustoa eta Armeniako genozidioa gertatu ziren. Gizakiaren historian inoiz ez da hainbeste jende hil XX. mendean bezala»


Alde batetik, Illugi Gunnarson Islandiako Kultura Ministroa eta Martin Garitano Gipuzkoako Ahalzun Nagusia bildu ziren Holmaviken. Bigarrenak Islandiako Gobernuko bandera txiki bat jaso zuen, bi herrialdeen arteko bakearen eta adiskidetasunaren seinale. Ondoren, Xabier Irujo bera eta Magnus Raffnson arkeologoa besarkatu egin ziren. Raffnson euskaldunak hiltzen ibili zen pertsona haietako baten ondorengoa da. Irujok hil ziren euskaldunen izenean parte hartu

zuen ekitaldian, nahiz eta ez den ondorengo zuzena: «amatxiren familia mutrikuarra da eta balea ehiztari horietako batzuk mutrikuek ziren, eta abizen bera dugu, besterik gabe».

Hala ere, bi gizon horientzat une hori biziki berezia izan zen lagunak direlako. Lagun egin ziren euskaldunen hilketari buruz ikerketak egiten. «Duela zazpi urte, heldu nintzenean, bere etxera joan nintzen eta ezustean eraman ninduen Holmavikeko basera. Nik ez nekien hain



Jonas Gudmunson Mendebaldeko Fiordoetako komisarioa, Illugi Gunnarson Islandiako Kultura Ministroa, Esther Ösp Holmavik herriko udal ordezkaria eta Martin Garitano Gipuzkoako Ahalzun Nagusia hildako euskal baleazaleen omenez jarri duten oroigarriaren aurrean. Azpian, euskal marinelek balea-olioa ekoizteko erabiltzen zuten faktoria. ISLANDIAKO GOBERNUA / Xabier IRUJO



Holmavik herriko etxe batzuk itsasotik ikusita. Herri horretan gelditu ziren euskaldunak bizitzen euren itsasontziak hondoratu ostean, eta bertan hil zituzten 1615ean. FOTOFIMI

gertu zegoenik. Bisitan joan nintzen esateko kongresu bat egiten ari ginela eta berak parte hartzea nahi genuela», kon-tatzen du oroitzapen onak batuz. Elkarre-kin afaldu eta elkarlanean aritzea erabaki zuten.

Istorio hori Euskal Herrian apenas eza-gutzen ez bazen ere, Irujok pasadizoaren berri izan zuen. Selma Huxley idazleak Ternuari buruzko ikerketa sakon bat egin zuen 1980ko hamarkadan eta bere libu-ruetako batean Islandiako afera aipatzen du. «Horrek jakin-mina piztu zidan eta pixkanaka horren inguruan ikerketak egi-ten hasi nintzen. Etxeparerekin eta Gi-puzkoako Foru Aldundiarekin jarri nin-tzen harremanetan».

Euskal marinelen kofradiek garrantzi handia izaten zuten baleazaleen konpainia handien osaeran. Orain arte uste izan da zeresanik ez zutela, baina arrantzaleen antolaketaz arduratzen zirela jakin ahal izan da

Euskaldunen eta islandiarren arteko harremana 100 urtez luzatu zen. Hori dela eta, hiztegi komun bat sortu zuten bi hizkuntzetako elementuak nahastuz. Guztira 745 hitz berri asmatu zituzten

Elkarlan horren fruitu oparoa izan da pasa den asteko kongresua. Bertan ideia desberdinak eztabaidatu dituzte. Adibi-dez, kofradiek balea harrapaketan enpre-san zuten paperaz mintzatu ziren. Histo-rialariaren esanetan, konpainia handiek gizonak kontratatzen zituzten eta arran-tzaleek zeresanik ez zutela uste zen, bai-na ez da horrela.

Kofradiek euskal kostaldean aritzen zi-ren batez ere, baina konpainia handiak antolatzen zituztenean, horiek kapitai-nak kontratatzen zituzten, ostean, gaine-rako eskaifaiaiko kideak hautateari ekite-ko. «Gizon horiek ez ziren sistema liberal batean bezala kontratatzen, ko-fradien babesa zutelako. Eskubide labo-

ralak zituzten horiei esker. Hiltzen bazi-ren, euren familiarekin zer gertatuko zen zehazten zuten. Eta, noski, lanaren kudeaketa ere kontutan hartzen zuten».

Gainera, arrantzaleek bazekiten lan ho-ri oso arriskutsua zela eta konfidantzaz-ko kideekin joatea bizirik segitzeko mo-durik ziurrena zela. Horregatik, ez ziren itsasoratzen ezagutzen ez zituzten kide-ak ontziratuta. Normalean, herri bereko arrantzaleak elkartzen ziren, nahiz eta kofradia desberdinetakoak izan, beraien-tzat garrantzitsua zelako arpoilaria, le-mazaina, harakina, zurgina, etab., nor-tzuk ziren jakitea; alegia, taldea ona zen ala ez.

Hori dela eta, kongresuan ondoriozta-tu dute euskal arrantzaleen kofradiek ere rol garrantzitsua betetzen zutela konpainia handien barnean. Horiei es-ker, gainera, ikasten zituzten ehizatze-ko teknikak, eta lanak nola banatu eskifaia-koen artean.

«**BASKAVIGIN**»

400 urtez “Espainolen hilketa” bezala ezagutu izan da gertaera hori (Spánverja-vigin, islandieraz), guzti-guztiak euskal-dunak zirela aski ezaguna den arren. Ja-zoerari “Euskaldunen hilketa” deitzeko saiakera egiten ari da Irujo, nahiz eta ba-

dakien ez dela batere erraza Islandian, ez delako ezagutu berri duten zerbait, eta tradizioz horrela deitzen diotelako.

«Orain jakin badakigu marinela horiek gipuzkoarrak zirela. Kulturalki, juridiko-ki, legalki, politikoki, 1615ean gipuzkoa-rrak gipuzkoarrak ziren eta Gaztelakoak gaztelarrak; Gaztelatik etortzen ziren pertsonak atzerritarak ziren Gipuzkoan. Ezin zuten ofizio publikorik egin, edozer salgai sartzeko aduanatik pasa behar zi-ren, protekzionismoak bazuen bere inda-rra-eta; beraz, sagardoa ezin zen sartu», azaldu zuen Irujok hildako marinelei «es-painol» deitzeak ez duela inolako zilegi-tasunik adierazteko.

«Hemendik aurrera, pertsona hauen ohorez, ‘Euskaldunen hilketa’, ‘Baskavi-gin’ deitzen hasi beharko ginateke. Zaila da aldatzea etiketa honek 400 urte ditue-lako. Garai hartan ‘espainola’ beste gauza bat zen, gaur egungo penintsularra edo iberikoa. Ez zuen inongo esanahi juridi-ko-politikorik, hitz geografiko bat beste-rik ez zen», aipatu zuen.

Esan bezala, espedizio honetan parte hartu zuten hiru itsasontzietako arran-tzale guztiak gipuzkoarrak ziren. Hala ere, gerora, XVII. mendean bertan, gaine-rako kostaldeko euskaldunak Islandiara iristen hasi ziren. Lapurtarrak eta bizkai-

tarrak ere bertan izan ziren; islandiarren eta euskaldunen arteko harremana hain zen estua, ezen islandiera-euskara glosarioa osatu baitzuten. Hitz gehienak lapurteraz daude, baina badaude gipuzkerazko beste batzuk, eta bizkaierazko zenbait esamolde ere bai.

EUSKARA-ISLANDIERA HIZTEGIA

100 urtetan zehar izandako harreman horren ondorioz euskara-islandiera pidgina sortu zuten –pidgin bat hizkuntza bati beste baten unitate lexikoak elkartzean eratzen den hizkuntza da. Euskal baleazaleek Islandian eta Ternuan osatu zuten pidgina-. Bizikidetzan oinarritzen den hizkuntza hau Jon Helgason filologoak aurkitu zuen 1905ean. Honek Kopengageko Unibertsitateko Arnamagnaeana liburutegian bi hiztegi aurkitu zituen. Eskuizkribu horiek XVII. mendearen bukaerakoak edo XVIII. mendearen hasierakoak dira. Lehenengo hitzegiak 16 orrialde ditu eta 517 hitz eta bigarrenak 10 orrialde eta 228 hitz. Hau da, guztira, 745 hitz.

Liburuetan eguneroko hitzez gain, baleak harrapatzearekin lotutakoak ere biltzen dira. Egileak nortzuk izan ziren ez da ezagutzen, baina ikerlariek uste dute marinelen jardueretan aritzen ziren bi idazle izan zirela, bertako biztanleekin lotura estua zutenak. Gerora beste bi hiztegi aurkitu zituzten.

Honako hauek dira liburu horietan jasotzen diren zenbait esaldi, euskal arrastoak sumatzen direnak: «Utinam renascatur pulchrius ac fortius Vasconia et bona cum pace iamiam vivat Hispania» («Utz ezazue Euskal Herria inoiz baino sendo eta ederrago biziberritu, eta Espainiarekin laster bakean bizi ahalko delako esperantza!»); «For ju mala gissuna» («Gizon gaiztoa zara»); «For mi presenta for ju biskusa eta sagarduna» («Bixkotxa eta sagardoa emango dizkizut»); «Gianzu caca» («Janzazu kaka»).

«Sua» eta «harria» euskaraz bezala esaten zituzten, «aizkora» berriz, «eskora» eta ondasunak «trukatu» beharrean «truckatu» egiten zituzten. Eskuak babesteko «eskularrua» ez, baizik eta «schularua» erabiltzen zuten. «Gessurtiak» gezurrak esaten zituen eta «nescagastia» neska gazte bat zen.

Bistan da, distantzia gorabehera, islandiarrek eta euskaldunek iragan komun bat dute, adiskidetasun luze bat ekarri zuena, 1615eko pasarte bortitz hori kenduta. Hala, Ögusko gobernadoreak garai hartan indarrean jarri zuen lege hura, euskaldunak hiltzea baimentzen zuena, bertan behera gelditu da.



Goian, Holmavik herriaren irudi bat.
Eskuinean, Magnus Rafsson
arkeologoa eta Xabier Irujo
historialaria Islandia eta Euskal
Herriaren arteko adiskidetasuna
sinbolikoki plazaratu zuten unean.
Paul LAWSTON / ETXEPARE INSTITUTUA



Gorka Zozaia
Kimikaria

Ikara

Mamuren ari bada Europan hedatzen, hori ikara da. Kontinente zaharrean bezala mundu zabalean ere. Ez da noski berria, baina badira bolada bereziki ikaragarriak. Pasa berri den apirila horren lekuko, ikara egin baitute lurrak, itsasoak eta jendetzak.


Denon belarrietara heldu da Nepaleko lurrikara. Askoren begietara Everesteko behe kanpalekua astindu duen elur-jauzia. Ikusgarria izan da ere Txileko hegoaldean Calbuco sumendiaren leherketa. Hainbesteko zabalpenik gabe, Albanian ere lurretik borborka heldu da ikara apirilaren lehenean, BNK Petroleum enpresaren fracking putzua geiser baten moduan lehertu denean Kumán herrixkan. Ikaragarriak dira irudiak, herri bat ur kutsatuko jacuzzi lokaztu bilakatua. Hain zuzen, gasa erauzteko metodo honek lurra ikartzten duela frogatutzat eman da, Nature Communications aldizkarian argitaratu berri denez. Zehazki, AEBetako Texaseko Azle herrian, 2013 eta 2014 artean, 30 bat lurrikarren jatorria frackinga dela ondorioztatu du geologo eta sismologo talde batek egindako ikerketak.

Eta lurrak bezala, itsasoak ere ikara egin du apirilean. Ikara dario itsasoari. Krokodilo malkoak isurtzen ditugu europarrek inguruko lurretan eragindako ikaragatik; mediterranea hilobi erraldoi bihurtua dugu. *Mare nostrum, sepulchro eorum* (gure itsasoa, haien hilotzia). Heriotza isasoratzearen kapitulu berri bat besterik ez, apirila honetakoa, Fukushimakoa lez. Oraingoan, zentral nuklearreko ur kutsatuak Pazifikokoe-kin ez nahasteko punpa sisteman jazo ei da akatsa eta TEPCO konpainiak argitu ez duen ur erradiaktibo kopurua isuri da. Hain zuzen ere, ikartzeko apiril honetantxe, Canadak berri eman du dagoeneko haien kostaldera heldu direla Japoniako ur erreadioaktiboak. Zehazki, otsailean Vancouverren zesio 134 eta 137 maila txikiak hauteman dira. Hori guztia, Japonian abiadura handiko trenak, maglev deritzanak, marka berri bat ezarri berri duenean 600 km/h abiadura gaindituta.

Eta halaxe pasatzen dira berri guztiok ere, abiadura handian, ikaragarrian. Eta behar bada horregatik ez gara dagoeneko ezerekin ikaratzen. Niri, bederen, apirileko balantze gordin horren gainetik, ikara gehien eragin didana etxean bertan jazo den fenomeno izan da. Espainiarren laurdenak eguzkiak lurrrari bira egiten diola zabaldu da pasa den astean eta, hara, nola atera garen euskaldunak horretaz trufaka! Zozoak beleari ipurbeltz, eta inozoetan inozona bere burua horretaz salbu ikusten duena. Hasteko eta behin, bistan denez, FECYTEK (Fundacion Española para la Ciencia y la Tecnología) egindako ikerketaren laginaren %10 inguru Hego Euskal Herriarrak gara. Bestetik, eta ikerketaren emaitza batzuk begiratzuz, lurraldekako emaitzetan ez gara oso ondo ateratzen espainolekin alderatzuz: zientziarekiko interesa Estatuko batez bestekoaren bi heren izatera ez da hel-tzen gurean; nafarrak zientzia museo gutxien bisitatzen dutenen artean daude, Eta prestakuntza gutxi dutela uste dute. EAEen ere, prestakuntza batezbestekotik beherakoa dela uste da eta, zien-

tziaren onurak eta kalteak ebaluatzeko orduan, taxuzko iritzirik emateko gaitasun gutxienekoen artean daudela Estatu osoan. Hori bai, transgenikoen eta nuklearren alde batezbestekotik gora gaude (frackingaren alde, baina, ez, eta nabarmen) baina, oro har, ez dugu uste ikerketa zientifikoaren ardatza ingurumenak izan beharko zukeenik; are gehiago, euskaldunak gara estatuan “zuhurtzia printzipoa” gutxien sustatzen dugunak! Azkenik, zozoarena eta belearena ere ageri da inkestan, madrildarrekin batera, nabarmen ikusten baitugu gure burua gainerako lurraldeak baino garatuago (batezbestekoa %30 izanik, %4ko atzerapena baizik ez dugu sumatzen gainerakoen aldean!).

Infinitoak ikaratu nau beti ni; txikitant, unibertsoak, eta orain, giza kirtenkeriak, zozokeriak. Tira, datorren astean “Progress” izeneko espazio-ontziak kontrolik gabe lur jotzearen paradoxarekin gelditzen naiz, eta behingoz bada ere, instant txiki batez, ikara Mario Draghiren aurpegian ikustearekin: *end BCE dick-tatorship!* •



«Infinitoak ikaratu nau beti ni, eta orain giza kirtenkeriak, zozokeriak». GAUR8

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Sakabanaketaren jatorria eta geroa

S arritan sakabanaketaz hitz egiten da iragane-ko hondarra balitz bezala. Esan egiten da etapa berriari ez dagokiola, gaur egungo garaie-tan anakronikoa dela, eta honez gero gehiegi ari dela luzatzen sakabanaketaren amaiera, egun ez baitauka inolako zentzurik.

Zoritzarrez, ez da horrela, sakabanaketa ez da iraganari soilik dagokion politika ankerra. Sakabanaketa, egun, ge-roko estrategiaren zutabe funtsezkoa da. Horregatik ez dago asmorik desagerrarazteko, geroko politikarako ete-kinak eman ditzakeelako.

Egia da oso une berezian jarri zela martxan, 1989 urtean, alegia. Euskarri teorikoa urte batzuk lehenagokoa da, 1980ko Lege Antiterroristan eta, batez ere, 1983ko ZEN Pla-narean, Zona Especial Norte, ezarritakoa. Lege Antiterroris-taren hainbat artikulua ez-konstituzionalak zirenez, 1983ko otsailean, Jose Barrionuevo PSOEko Barne Ministroak ZEN plana diseinatu zuen Lege Antiterroristan legez kanpo utzi ziren ideiak berriz hartu eta bestelako neurriak ere gehitzeko, neurri politikoak, sozialak, legalak eta polizia-lak, terrorismoari aurre egite-ko asmoz.

Neurrian artean, garrantzi handia eman zitzaion komu-nikazioari eta gizartean eman beharreko mezuari. Besteak beste, esaten zuen herritarrak konbentzitu be-har zirela (eta bereziki preso-en senideak) atxilotuek tratatu duina jasotzen zutela.

Barrionuevok berak praktikara eraman zuen paperean idatzitakoa, 1983ko otsailaren 4an prentsan esan zuene-an «Espainian, honez gero, ez dago tortura kasurik». Urte bereko urriaren 15ean Lasa eta Zabala bahitu zituzten, bere aginduz.

Bi urte beranduago, 1985ean, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen "Acuerdo Antiterrorista" izenekoak, Ardanza lehendakari izendatu eta 12 egunera. Eta, akordio hori oi-narri hartuta, Espainiako alderdi gehienek Madrilgo Itu-na sinatu zuten 1987an, zeinak berresten baitzuen Gas-teizen adostutakoa eta bide eman baitzion Jaurlaritzari Ajuria Eneako Ituna egin zezan 1988an. Sakabanaketa hurrengo urtean hasi zen, 1989an.

Beraz, sakabanaketa ez da unean uneko erabaki arina. Plan global baten atala da, ondo diseinatua eta etekin po-

litikoa lortzera bideratua, neurri polizial eta komunikati-boren bitartez. Lana hartu zuten, alajaina. Bi kartzeletan zeuden presoak 76 kartzeletera eramaten zituzten eta, hori gutxi balitz, kartzelen barruan modulu ezberdine-tan banatu zituzten, kartzela-kopurua biderkatzeko.

26 urte pasa ostean, eta erakunde armatuak armak isi-larazi dituenetik hiru urte eta erdi joan direla, askok dio-te honez gero ez duela zentzurik emaitzarik eman ez duen neurri krudel horri eusteak.

Arazoa, baina, zera da, Espainiak ZEN plan haren bidez irabazi nahi zuen guda ez duela irabazi. Batzuen eta bes-teen armek ez dutela lortu militarki irabaztea. Guda-ze-laian lortu ez den garaipena, beste eremu batean irabazi beharko da, kontaketa-eren eremuan, hain zuzen. Presoen arloan edozein abantaila ematea, beraz, eragozpen bihur daiteke estatuarentzat, irabazle irudia bereganatu nahi duen honetan.

Batzuen eta besteen armek ez dute lortu militarki irabaztea. Guda-zelaian lortu ez den garaipena, beste eremu batean irabazi beharko da orain, kontaketa-eren eremuan, hain zuzen ere

Estatuaren bigarren arazoa da gero eta preso gutxiago dituela kartzeletan. Beraz, daudenei zigorra luzarazi be-har die batetik eta, bestetik, komandoen faltan, disiden-teak atxilotu behar ditu, abokatuak, osasun arlokoak eta solidarioak. Kartzeletako okupazio maila kopuru altue-tan mantendu behar du ahalik eta denbora luzeenean. Bestela, 10-12 urteko epean bakarrik 100-120 preso izan-go ditu, eta gehiago kostatuko zaio garaile agertzea me-moriaren liburuan. Nola justifikatuko ditu giza eskubi-deetan egindako triskantzak, zuzenbide-estatu batean onartezinak diren legeak eta ekimenak, gaizkilerik ere ez badu kartzeletan?

Sakabanaketa ez da iraganeko hondarra. Sakabanaketa geroko estrategiaren ardatza da, irabazle itxura beregana-tu nahi duen estatu ahul eta nokeatu baten hautua, bere egiari eusteko hartu duen muturreko hautua, alegia. •



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



«Indarkeria desagerrarazi daiteke, non eta nola gertatu den jakinda, modua dugulako»

Antropologoa eta etnologoa, baita irakasle, idazle eta diputatu ere. Lubaki desberdinetatik tira egin du Marcela Lagardek (Mexiko, 1948) indarrean dagoen patriarkatua eraisteko. Kolokan jartzea behintzat lortu du, feminizidio kategoria osatu, eta Mexikoko Zigor Kode Federalean delitutzat hartzea lortuz.

Lau hamarkadetan ereindakoa jaso eta bilduma egin du argitaratu duen azken liburuabn, “El feminismo en mi vida”. Hura besapean hartuta gurutzatu du ozeanoa eta Euskal Herriko hainbat herritara hurbildu da.

**MARCELA
LAGARDE**

ANDRE INDIGENEN AHOTSA

Hegoamerikako feminismoaren ahots ezagunena den arren, adeitsu eta hurbila da. Bitxikeriak balira bezala azaltzen ditu egia biribilak

oihana.llorente@gaur8.info

Arduraz mintzatu zaigu, ongizate estatuturik gabeko geroak sortzen dion ikara onartuz, baina baita baikortasunez ere. Harro dago feminismoak lortu duen guztiarekin eta aurrerantzean ere hala izango dela sinestuta dago.

Ezaguna zara feminizidio hitza sortzeagatik. Ordura arte izenik ez zuen krimen bati izena ipini zenion. Garrantzitsua al da izendatzea?

Tradizio idatziko jendarteetan oso garrantzitsua da gauzak bere izenez deitzea. Are gehiago, gizarteak bere egunerokoa antolatze eta bizitze balore eta printzipio zehatz batzuen arabera arautzeko sortutako tresnetan idatziz jasotzea.

Feminizidioaren kategoria osatzeko lan egin nuen, bai, baina Diana Russell eta Jill Radfordek idatzitako liburu batean oinarritu nintzen. Pentsamendu

feministaren genealogia egiteari oso garrantzitsu deritzot, eta beti aipatzen dut. Haiek *femicide* deitu zioten emakumeen aurkako krimenen politikari. Ciudad Juarezeko fenomenoaren aurrean nengoela irakurri nuen euren liburua eta emakume guztien erailketek zergati bat zutela zioten. Hortik aurrera, nire sormenari bide eman, eta haiek ziotena Mexikon kokatzen ahalegindu nintzen. Mexikon konplexuagoa zen egoera, Estatua ia konplizea zelako ezberdintasunen erreproduzioan eta emakumeen aurkako krimenen justizia ezan. Hor ohartu nintzen, baina, zigorgabetasuna ere badela feminizidioaren parte.

Edukiz ere bete zenuten feminizidioaren kategoria.

Ordura arte gizonen arrazionaltasun edo irrazionaltasun arazoekin ala gaixotasun mentalarekin nahasten ziren jarrerak, jendarteko delituen parte gisa kokatzea ekarri zuen feminizidio hitza onartzeak eta jasotzeak. Emakume eta neskato guztiak gaude indarkeria mota horren mehatxupean. Izan ere, genero zigorraren bidez, emakumeok ezarri zaizkigun marrak ez gainditzea lortu nahi da.

Feminizidio hitzaren aurretik, nola azaltzen zen emakumeen aurkako indarkeria?

Desagertu eta ondoren hilda aurkitutako emakumeen heriotzaren aurrean denetik esaten zen. Oro har, hiltzaileak gaixotzat jotzen ziren, erotzat. Baina denetik entzun da, hildako emakume guztiak *makiletan* lan egiten zuten emakume ia esklaboak zirela, edota antolatutako krimenaren krimenak zirela. Pentsa, emakumeen hilotzak kriminal mafiosoren baten lurretan agertzen zirenean, gorpu horiek zer edo zer esan nahi zuten mezuak zirela uste zen. Bertsio asko zabaldu ziren, baina ez zen esandako horretatik deus. Genero krimenak ziren eta emakumeek egunero eta modu normalizatuan bizi dugun indarkeriaren izebergaren punta besterik ez dira.





Indarkeria gogorrena, gainera, feminizidioa, ezagunak diren pertsonen artean gertatzen da, bikoteen artean, senideen artean... Estatu espainolean bezala.

Mexiko aipatuta, Ciudad Juarez datorkigu burura.

Nire herrian, Mexikon, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna oso handia da. Garapenerako sarbidean, parte hartze politikoan, enpresen zuzendaritzan, denean. Jendartearen parte handi batek, gainera, bat egiten du bereizkeria horrekin eta hura legitimatzeko egiten den edozer babesten du.

Gizonek bortitzak izateko eskubidea dute jendartearen. Egia da batzuk dioten bezala legeetan eskubide hori ez dagoela zehatz mehatz jasota; ohitura kontua ere bada, baina, berdintasunaren alde egiten ez duten legeek haren kontra eta feminizidioaren alde egiten dute, berdin legeak hezkuntzakoak zein osasun eremukoak izan. Modu batean, beraz, jasota dago bortizkeriaz jokatzeko eskubidea.

Ciudad Juarezek Estatu Batuekin egiten du muga. Feminizidioa muga izaerari hori zor zitzaiola uste genuen, baina beste muga batzuk aztertuta hipotesi hori baztertu genuen. Muga izaerak zerikusia du, baina gakoa muga horren nolakotasunean datza. Legez kanpokoa da nagusi bertan; *mordidak*, eguneroko ogi. Zigorgabetasun handia dago eta horrek sustatzen du indarkeria eta feminizidioa.

Zorionez, ez zen gauza bera gertatzen Mexiko osoan.

Jendartea geroz eta matxista eta misoginoagoa izan, orduan eta normalizatuago eta naturalizatuago dago emakumeen aurkako indarkeria. Hala ikertu eta deskubritu genuen. Zenbat eta eskubide eta garapen gutxiago, orduan eta emakumeen aurkako indarkeria gehiago. Feminizidioa ez dago orokortuta, baldintza zehatz batzuk dauden tokian kontzentratuta baizik. Zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zigorgabetasun eta tolerantzia sozial handiagoko eta bestelako baldintza eko-

Jendartea geroz eta matxista eta misoginoagoa izan orduan eta normalizatuago eta naturalizatuago dago emakumeen aurkako indarkeria»



Argazkiak: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

nomiko, kultural eta sozial jakin batzuek bat egiten duten lekueetan gertatzen da feminizidioa gehien.

Antropologoa ere bazara eta feminizidioa aztertzeke ikerketa zuzendu zenuen.

Sekulako ikerketa garatu genuen Mexiko osoan. Estatu osoa aztertu genuen emakumeen aurkako indarkeria non eta zergatik gertatzen zen jakiteko. Hipotesiekin eta oraindik ere balio handikoak diren esparru teoriakoekin lan egin genuen, marra gorriak non zeuden azaltzeko. Emakumeen bizi baldintzak hobek diren lekuetan eta gizonen indarkeria mugatuago dagoen eremuetan bake irlak daudela frogatu genuen.

Hori guztia mapetan ere irudikatu zenuten.

Georreferentziarekin lan handia egin dut. Egoera soziala, politikoa edota ekonomikoa ain-

tzat hartzen dituzten datu zehatzekin egin ditut mapak. Modu horretan, hilketak non gertatuko diren jakin ahal da, baita zergatia azaldu ere.

Zu zeu Mexikoko diputatu izan zara eta lan handia egin duzu legeen alorrean.

Bai, kuota bidezko diputatu izan naiz, ohore handiz izan ere! Izan ere, nire aitzindariak borroka egin izan ez balute, ez nintzateke inoiz diputatu izatera iritsiko. Berdintasuna legeetan txertatzea lortu genuen, baita Mexikoko konstituzioan ere. Hori sekulako aldaketa izen zen. Konstituzioan, gainera, giza eskubideak sartzea lortu genuen, ordura arte berme indibidualak besterik ez baitzeuden. Aldaketa horiekin guztiekin emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria gutxitzen eta desagerrarazten saiatzen ari gara.

Feminizidioa izendatu eta azaldu genuen, baina oraindik

ere azaleratzen jarraitzen dugu. Berdintasuna ezin da normala izan indarkeria arrunta den bitartean. Bestelako elkarbizitza bat sustatzea da gure helburua.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi daitekeela uste duzu?

Uste ez, ziur nago. Formula bat dugu eskuartean, gainera. Orain badakigu non eta zergatik gertatzen den eta, horrenbestez baldintza sozialak aldatuta ekidin daitekeela badakigu. Badakigu zer aldatu behar den.

Mexikon, adibidez, indarrean dagoen eta emakumeen eta neskatuen kontrako indarkeria guztiak desagerrarazteko estatu politikak jasotzen dituen lege garrantzitsu bat egin genuen. Estatuaren edukia aldatu behar da, bertako erakundeei eta bizi dugun paradigmari buelta eman behar diegu. Izan ere, paradigma horrek babesten, sustatzen eta zeharo atsegin du gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna.

Ahal da eta horretan gaude. Ez Mexikon bakarrik gainera, emakumeen aurkako indarkeriaren kausa bereziki mendebaldekoa bada ere, mendebaldekoak ez diren hainbat herrietan ere badira indarkeria mota horren kontra borrokatzen diren talde feministak ere. Kausa unibertuala da, beraz.

Gobernatzeko politika onak eta gizarte zibilaren politika sozialak hartu behar ditugu eredu gisa, emakumeen aurkako indarkeriaren forma guztiak ezabatzeke. Horiek guztiak ezabatzeko. Hori guztiak ezabatzeko ez baditugu, ez dugu feminizidioa desagerraraziko.

Bide onetik goaz?

Tira. Mexikon, adibidez, izendatu, legeetan aipatu, eta hura ekiditeko politikak egin ostean, handitu egin dira feminizidio krimenak. Ez dute behera egin. Azken urteetan gure herrialdea oso bestelakoak eta larriak diren indarkerietan murgilduta dago. Inoiz imajinatuko ez nituen gauzak ikusten ari naiz, ikasle gazteen desagertzeak, zigorgabetasun izugarria... Deitoraga-

Euskarak ez du sexurik, baina...

Maidar Iantzi Goienetxe

A ita-semeek is-
tripua izan
dute eta aita
hil egin da.

Semea ospitalera eraman eta zirujaua oihuka hasi da: Ezin diot ebakuntzarik egin, nire semea da!». Horixe “Tribuaren berbak” saioko atal batean, Kike Amonarrirek etxekoei eta Zarautzen topatu dituen herritarrei planteatu dien asmakizuna. Mikro aitzinean, esaldiak behin eta berriro irakurtzen, iseltasuna eta irribarreak, jendea harri eta zur. «Ezin liteke!», diote gizon-emakumeek, zahar eta gazteek. «Adarrak egon dira hortik edo?». «Oraingo familia ezberdinak izango dira, hori bururatzen zait»...

Sofan ere pentsatu eta pentsatu ari gara (zuk, irakurle, zer diozu?)... Guri antzeko erantzunak etortzen zaizkigu... Harik eta elkarrizketatutako batek bota duen arte: «Medikua ama da». Uste dut aurpegi berdintsua gelditu zaigula denoi. Nola ez zait bururatu? Emakumezko mediku ugari dago ba... Bakarrak asmatu du, eta ariketa aurretik zekielako.

Beti aditu dugu euskarak ez duela generorik, berez, ez du, baina... Zirujaua erran eta gizon bat irudikatzen dugu bata jantzita. Hor ikusten da zenbateraino ditugun barneratuta ideia jakin batzuk; normala ere bada urtetako historiaren eta heziketaren ondorio den neurrian, eta halako ariketak onak direla uste dut, gure barrenak mugitzeko.

Egunkarian idazterakoan, adibidez, zailtasunak sortzen zaizkigu euskaratik gaztelaniara itzultzean, azken honetan generoak bereizten direlako eta zirujau «cirujano» edo «cirujana» itzuli behar delako. Azken urteetan «ciudadanas y ciudadanos» eta halako formulak zabaldu dira, azkenaldian «miembra» hitza ere sortu da. Euskaraz errazagoa dugula pentsatu izan dut, baina jabetu naiz hizkuntzak ez direla sexista, hiztunak baizik. •

«Mugimendu
feminista, edonon
eta edonola, edozein
ordutan eta edozein
korrontekoa!
Izugarri gustatzen
zait! Mugimendu
horrek
baikortasuna
eragiten du, bai eta
gainerako
pertsonei alde
egiteko gogoia ere»



ria da gure herrian gertatzen ari dena, feminizidioari eta horri guztiari modu integralean aurre egin beharrean gaude, eta horretan ari gara.

Halere, orain 40 urte, ni feminismoan murgildu nintzenean oso gutxi ginen eta eragin eskasa genuen. Orain milioika emakumeren ahotsa gara, milioika nahi eta beharren ahotsa, baina baita eraikitako milioika alternatiben ahotsa ere. Egun, unibertsitate esanguratsu guztietan gaude, bertan dira genero ikerketak... eta nazioarteko politikan ere eragiten dugu. Horrek sekulako plazera ematen du. Gauzak asko aldatu dira. Egun, gobernu askok berdintasunaren irizpidea sartu beste erremediorik ez du. Hau guztia orain 40 urte irudikatzea ere ezinezkoa zen.

Nola ikusten duzu mugimendu feminista?

Edonon eta edonola, edozein ordutan eta edozein korrontekoa, izugarri gustatzen zait!

Ni ez, baina feminista asko oso dibertigarriak dira, jaia eta dantza asko gustatzen zaie. Mugimendu honek baikortasuna eragiten du, bai eta gainontzeko pertsonen alde egiteko gogoia ere.

Eta osasuntsu ikusten duzu?

Nola ez dut osasuntsu ikusiko, hain denbora gutxian lortu dugun guztiarekin? Aurrerapen apartak egin ditugu! Feminismoak bestelako geroarekin amesteko aukera eskaini die pertsonari. Hori da feminismoaren ekarpen handiena. Oso une zailan gaude, kapitalismo bortitza eta zital honek ongizate estatua ezabatzea helburu duela. Gerra-ondorengo ekarpen handiena izan zen ongizate estatua, hezkuntza zein osasuna jasotzeko milioika pertsonen aukera bakarra.

Niri izugarrizko ikara ematen dit ongizate estatutik gabeko geroak. Horren aurrean, baina, feminismoak kooperazio kultura bat dakar, bakearen eta giza eskubideen errespetuaren kultura bat, eta, beraz, oso bide garrantzitsua da. Noski, bestelako mugimendu garaikideekin bate-

ra ibili beharrekoa, datorrenari modu eraikitzailean aurre egiteko.

Mugimendu feministaren zein lorpen nabarmenduko zenuke?

Haurdunaldiko lehen 12 asteetan abortoa erabat askea izateko eskubidea orain dela gutxi lortu dugu nire herrian. Hori luxu bat da iruditu zait. Amatasun libre eta nahierakoaren aldeko borroka, gainera, lehen borroketako bat izan nuen. Adostutakoa betetzea egiaztatu behar dugu orain, eta neska gazteek euren gorputzarekin eta sexualitatearekin nahi dutena egiteko aukera izatea ziurtatu.

Beste hamaika eskubideren alde ere egin behar izan dut, eta borroka horiek kausa garaikide eta unibertsal bihurtzeko, emakumeen giza eskubide izendatu ditugu. Berriz ere gizaki bihurtzea luxu bat da, ezta? [barreak]. Horretan guztian parte hartzea izugarria da. Borrokan egin ditudan lau hamarkadetan aldaketa nabarmenak eman dira.

Eta oraindik irabazi ez den borroka bat aipatu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Emakumeen Giza Eskubideak eta, bereziki, neskatoenak. Nire konpromiso behinena da. NBEk, gainera, munduko neskatoei eskaini die 2015 urtea. Euren egoera munduan nola dagoa den ikertu nahi du. Oso garrantzitsua da neskatoen giza eskubideak babestu eta sustatzea. Nire herrialdean, Mexikon, milioika neskato daude pobrezian, marjinazioan, bazterkerian eta miserian. Gertutik bizi dudalako nago sentibilizatuta, baita generoaren zein etniaren ikuspegietatik ere. Asko larritzen nau, etnien oinarritutako bazterkeria. Herri indigenak bere eskubideak eraikitzen ari dira oraindik. Horrelako dibertsitate etnikoa izateaz harro egon beharko ginateke eta, autonomia eta pertinentzia duten herri gisa aitoritu beharko genituzke herri indigenak, benetako estatu demokratiko bat bihurtu ahal izateko.



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti

ANBROXI PONCE

Andoaingo Laborde enpresak garrantzi handia izan zuen 1926tik 1977ra, martxan egon zen artean. Gerrak ere harrapatu zuen, eta gerrara joandako gizonen tokia emakume askok hartu zuten lantokian. Anbroxi Ponce Labordera iritsi zenerako, emakume asko zeuden metalezko erremintak egiten zituen lan kate horretan.

Maiatzaren lehenaren eta hirua-
ren arte-
an, langi-
l e e n
eskubideen aldarrien eta ama-
ren eguneko oparien begizta go-
rrien artean, langilea eta ama
den Anbroxi Ponce andoainda-
rrarekin egin dugu hitzordua.
Andoainen jaio zen 1945. urtean
eta 17 urte zituela hasi zen lane-
an “Laborde Hermanos” izeneko
lantegian. Metal gogorreko erre-
mintak egiten zituzten bertan;
barautsak, zerrak, zorrotzaile-
ak...

1926 eta 1977 urteen bitartean
egon zen martxan bere garaian
sektoreko puntakoenen artean
egondako lantegia eta arrastoa
utzi du herrian; bai arkitektoni-
koki, «altxorra» irizten baitiote
Laborderen eraikinari eta Ando-
aingo eta inguruko herritar as-
koren memorian ondo gordeta
daudelako bertan lanean egin-
dako urteak.

«17 urte nituela hasi nintzen
lanean Laborden, eta 31 urtera
arte aritu nintzen bertan. Ni
iristerako emakume asko zego-
en bertan lanean. Gero, ezkondu
eta etxera erretiratu nintzen.
Orduan hala egiten genuen
emakume gehienek; ezkondu,
lana utzi eta etxeko lanetan hasi»,
hasi da kontatzen. Anbroxi
ez zen denbora luzean egon
etxean, handik gutxira super-
merkatu baten ardura hartu bai-
tzuen Andoainen bertan. Eta
hantxe aritu da lanean bizitza
osoan, 60 urte zituela erretiratu
zen arte. «Ni ez naiz geldirik
egotekoa. Batzutan pentsatzen
dut orduan etxean geratu izan
banintz, dendaren proiektua
hartu izan ez banu, nire bizitza
oso desberdina izango litzateke-
ela. Pozik nago egindako auke-
rarekin».

1966ko uztailan egindako bi-
deo bat ekarri digu Anbroxik,
VHS formatuan. «Nik ezin izan
dut ikusi etxean, dagoeneko ez
daukagulako hori ikusteko apa-
railurik. Baina hor agertzen naiz
ni, hogeita gutxi urterekin, or-
gatila batekin. Zenbat barre egin
genuen bideo hura grabatzen!».
Guk ikusi dugu bideoa, baita An-

broxi gaztea biltegian orgatila
eramanaz ere. Jaso dugunez, La-
borde lantegia garrantzitsua
izan zen hala Andoainen nola
Estatu espainolean. Txatarratik
abiatuta, zehaztasun handiko
metalezko erremintak egiten zi-
tuzten katean lan eginez eta ka-
te horretan, emakume asko
egon zen urte askoan.

LAN BERDINA, SOLDATA DESBERDINA

1926. urtean martxan hasi zene-
an, 15 langile zeuzkan Labordek.
Urtez urte, lan karga handitu
neurrian, langile kopuruak gora
egin zuen. Hartara, 1936ko uz-
tailaren 17an Labordek 49 langi-
le zituen, 32 gizonezko eta 17
emakume. Gerra zela-eta, uztai-
la eta iraila bitartean jarduera
eten zuen Labordek, eta berriz
ekin zion lanari 1936ko irailaren
12an, 12 langilerekin. 1939ko
martxoan Labordek 236 langile
zituen; 111 gizonezko eta 125
emakumezko. Izan ere, gizonez-
ko askok gerrara joan behar izan
zuen eta, nahiz eta sasoi korapi-
latsuak eta zailak izan, Laborde-
ren ekoizpenak gora egiten segi-
tu zuen. Hartara, emakume asko
joan ziren lantegira lanera, ge-
rrara joandako gizonek hutsik
utzitako lanpostuak betetzera.
Lana berdin egin arren, emaku-
mezkoen eta gizonezkoen solda-
tak ez ziren berdinak izan inoiz.
Emakumeek beti kobratu izan
zuten gutxiago lan berdina egi-
teagatik.

Anbroxi 1962. urtean sartu
zen lanera, lantegiaren garai
onenean. Hain juxtu, 1963. urte-
an izan zuen Labordek langile
kopuru handiena: 525; 387 gizo-
nezko eta 138 emakumezko.

«Pozik joaten ginen lanera, gi-
ro ona genuen, gazteak ginen
langileetako asko... hasieran ba-
rautsak egiteko azken fasean lan
egiten nuen. Tratamendu berezi
bat ematen genien, eta labera.
Gero biltegian ere aritu nintzen,
eta azken urteetan, harreraren»,
kontatu du. Izan ere, eta gerra
tarteko, urte askoan emakume-
ek ‘gizonezkoenak’ omen ziren
lanak egin zituzten Laborden.
«Lan antzekoak egiten genituela
uste dut. Biltegian, esaterako, sei
emakume aritzen ginen, eta ar-
duraduna gizonezkoa zen. Eder-



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

ki moldatzen ginen gure artean, bagenuen talde izaera», gogoratu du. Behin gerra bukatuta eta gizonezko langileen kopurua berriz igotzen hasi zenean, gauzak aldatu egin ziren. 1968. urtean Lan Ministeritzaren Gipuzkoako delegaritzak lantegiko «ohiko lan femeninoak» zehaztu zituen, argi gera zedin non lan egin zezaketen eta non ez.

Anbroxik, baina, naturaltasunez bizi zituen desberdintasunak. «Bagenekien gizonek baino gutxiago kobratzen genuela. Gogoan dut nola ematen ziguten soldata gutun-azal marroi batean. Ez naiz akordatzan zenbatekoa izaten zen, baina bagenekien gizonezkoena baino gutxiago zela. Tira, garaiak desberdinak ziren. Langileen esku-bideen aldeko manifestazioetan ere lantegiko emakumeak han izaten ginen, baina ez espresuki emakume langileen eskubideak defendatzeko, langileenak orokorrean baizik».

Senarra eta biak erretiratu zirenean ere desberdintasunak ikusi zituen: «Pentsa, bizitza osoa eman dugu lan berdina eginez, baina berak erretiro hobe dauka».

Labordeko garaitik gordetzen ditu ondo pasatako uneak eta betirako egindako lagunak. «Akordatzan naiz nola joaten ginen lanera errenkadan. Andoaingoak eta ingurukoak. Inguruko herrietakoak trenez etortzen ziren Andoainera, eta gero oinez joaten ginen lantokira gehienak, gutxi batzuk motorraz... Goizetan ikustekoa zen jende ilara oinez lantegi aldera joaten. Andoainentzat eta ingu-

«17 urte nituela hasi nintzen lanean Laborden, eta 31 urtera arte aritu nintzen. Ni iristerako emakume asko zegoen bertan lanean. Gero, ezkondu eta etxera erretiratu nintzen»

«Bagenekien gizonek baino gutxiago kobratzen genuela lan berdina egin arren. Gogoan dut nola ematen ziguten soldata sobretxo marroi batean. Garai hartan horrela ziren gauzak»

ruko herrientzat garrantzitsua izan zen Laborde». Langile kopuruari dagokionez, 1963 urtea izan zen Laborderen puntu gorena. Hortik aurrera, gauzak okertzen hasi ziren, eta langile kopurua murrizten. 1977 urtean,

ateak itxi zituenean, 226 langile zituen; gehienak 45 urte ingurukoak, eta Laborden 15 urte zera-matzatenak.

Esan bezala, Labordeko esperientziaren ondoren, Anbroxik supermerkatu baten ardura

hartu zuen. «Lau lagun neuzkan nire kargu, eta asteburuetan gehiago. Denetarik egitea tokatzen zitzaidan, baina gustura egiten nuen. Egia esan, egun

osoa ematen nuen lanean, alaba ere handik bueltan ibiltzen zen askotan, eta gustura aritzen nintzen. Nire belaunaldiko emakume asko etxean geratu ziren, alabaren lagun askoren amak etxean zeuden. Berea ez, baina pozik ikusten nuen. Eta iruditzen zait batzuetan harro ere sentitzen zela bere amarekin».

Hogeita hamar urte horietan, supermerkatuko pasilloetatik barna jendarte baten aldaketa ikusi du. «Garai batean emakumeak etortzen ziren nagusiki erosketak egitera, eta gizonek dendaren kanpoaldean itxaroten zieten, gero karga eramaten laguntzeko. Zorionez, gauzak aldatzen hasi ziren, horren lekuko izan naiz, eta gero eta gizonezko gehiago etortzen hasi zen erosketak egitera. Egia da gauzak asko aldatu direla, nahiz eta oraindik asko dagoen aldatzeko. Hori ere ez da ahaztu behar». •

amagoia.mujika@gaur8.info



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Gaztetxoak eta teknologiekiko menpekotasuna

Mundu mailan %5-10 omen dira adikzio digitala pairatzen duten erabiltzaileak; 200 milioi pertsona inguru. Espero da, gainera, ko-

puru horrek gora eta gora egitea. Adituek diotenez, plazeraren emozioa sortzeko ahalmena duen elementu batek, adikzioa edo menpekotasuna sortzeko aukera handiak ditu. Hortaz, Internetek, bideojokek, eta komunikatzeko balio duten tresnek (Whatsapp edo posta elektronikoa, kasu), adikzioa sortzeko adina plazer sortzen dute, ziur aski.

Zentzu horretan, gero eta gehiago dira euren seme-alabek teknologiekiko duten menpekotasunarekin kezkatzen diren gurasoak eta hezitzaileak. Aste barruko egunetan jarritako erabilera arauak eta mugak betetzen omen dituzte, baina asteburutan ordu mugarik jartzen ez denez, asteburu osoa smartphonearen bueltan igarotzen omen dute. Erantzun beharko litzatekeen lehen galdera da honakoa (gaztetxoaren adinaren eta izaeraren arabera, noski): asteburutan, bere denbora librean ez da mugarik jarri behar?

Ezin dugu ahaztu gaztetxoek komunikazioko eta aisialdiko elementu nagusi bilakatu dela smartphonea (asteburutan mugarik ez jartzeak izango du zeresanik horretan, noski). Ildo horretan, adituen arabera, erabilera erregulatua eta ez erregulatua artean dagoen aldea ez da denbora terminoetan neurtzen, eguneroko bizitzan duen eraginean baizik. Hau da, smartphonearekin denbora asko igarotzeak, bere horretan, ez omen du menpekotasuna adierazten. Erabilera hori eguneroko bizitza oztopatzen edo eragozten hasten den unean, has omen gaitezke, hastekotan, menpekotasunaz hitz egiten. Hortaz, smartphoneari begira ematen duen denboraz harago, bere jarrerak eta egunerokotasunak izan duen aldaketa ere aztertu behar dugu, menpekotasunaz ari garen edo ez erabakitzeko.

Guraso askok menpekotasunaren sintomak zein diren galdetzen didate. Izan daitezke hauek: euforia adieraztea (erabiltzerakoan), baina baita antsietatea eta erru sentimendua (erabilera erregu-

latzea lortzen ez duelako) ere; loak ezin hartzea, burua aktibo izateagatik; eta, noski, senideekiko eta lagunekiko harremanak zaintzeari uztea.

Egin diren azterketen arabera, ezberdintasunak atzematen dira emakumezkoen eta gizonezkoen menpekotasunen artean. Emakumezkoek *chat*, enkante edo subasta eta erosketa webguneekiko menpekotasuna izaten omen dute, kasurik gehienetan. Gizonezkoek, berriz, *on line* joko, eduki sexuarekiko eta rol jokoekiko. World of Warcraft da horietako bat, mundu mailan ia 12 milioi erabiltzaile dituen (tartean, 10-12 urteko gaztetxoak).

Baina menpekotasun hori zergatik sortzen da? Adituek diotenez, arrazoi asko daude: anonimotasunerako aukera, talde-kidetzat sentimendua eta desinhibitze bidea dira garrantzitsuenak. Honen eskutik, noski, zenbait arrisku datoz: arazo emozionalak, batez ere harremanak sortu eta mantentzeko.

Horren guztiaren aurrean, adituek ematen dituzten gomendioak askotarikoak dira. Batzuk ordenagailuaren edo smartphonearen erabilera debekatzearen aldekoak dira. Nik besteekin egiten dut bat, debekua baino, erregulazioa helburu izango duten mugak jartzearen aldekoa bainaz: erabilera mugatuz, beste ekintza sozial batzuk sustatuz eta, behar izatekotan, laguntza profesionala eskatuz. Horri honakoa gehi diezaiokegu: lotara joan baino ordubete lehenago (gutxienez) smartphonea itzaltzea (loan eragina duelako), baita bazkari eta jatorduetan ere, eta, zergatik ez, denbora librearen zati batzuetan (denbora librea smartphonearekin gabe ere bizi dezan).

Horretarako, ordea, guraso edo hezitzaileak eredu izan behar du. Eta askotan sumatzen dut, hain justu, norberaren jarreraren gaineko hausnarketa hori falta dela, kezka osoa seme-alabengan proiektatuz. Eta, izan, eredu izatea da besteei mugak erakusteko biderik eraginkorrenetako bat. •



Gaztetxoek aisialdiko eta komunikazioko elementu nagusi bihurtu da smartphonea.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



XABIER GOENAGA FUNTSA

«BOSTAK ETA ILUNA, TXERRIA HILTZEKO EGUNA»

Jose Makazaga harakin eta Donostiako Orfeoiko kideak, senide eta bizilagunekin batera, 1905. urtean eta Donostiako kaia inguruan eginiko txerri hilketa jasotzen du irudiak. Euskal Herriko baserrietan oraindik ere bizirik dirauen ohitura da txerri hilketarena, eta, hala, urte osorako haragi eta hestekiak eskuratzen dira. Neguko hilabeteetan egin ohi da hilketa, ilargia ilbeheran dagoela; izan ere, herri jakintzak dioenez, ilgoran animaliaren haragiak indar gutxiago du eta ez da egoki mantentzen. Irudian bezala, senideek eta lagunek laguntzen dute erritu honetan eta ahaleginaren ordainetan txerrimuinak banatzen dira. Atsotitz ugari jasotzen dute txerri hilketaren ohitura; hor dira "Ezkondutako urtea eta txerria hildako astea, onenak" edo "Bostak eta iluna, txerria hiltzeko eguna" esaera zaharrak, besteak beste.



Ni ere ba NAIZ!!
Itziar Ituño
 Itziar Ituño

Harpidetuz ere
GURE
BALIABIDEEN
ALDE

10 iPhone 6 eta Galaxy S6
 zozketan sartuko zara!



Gainera JAKA ZORAGARRI
 hauetako bat opari:



Harpidetza orain egiten baduzu **opari zoragarri bat** jasoko duzu: lehen hilabetea doan edo udaberrirako kalitate handiko jaka. Bietatik nahiago duzuna. Gainera, **10 iPhone 6 eta Galaxy S6**ren zozketan sartuko zara. Saridun suertatuz gero, nahi duzun telefonoa aukeratu ahal izango duzu. Horretaz guztiaz gain, **harpidedun izatearen abantaila guztiak** eskuratuko dituzu!

HARPIDEDUNENTZAT OHARRA: Martxoaren 17 an e-maila igorri dizuegu harpidedun guztioi mugikorren zozketan nola parte hartu eta NAIZeko jaka hauek nola eskuratu azaltzen.

ORAIN DA UNEA
 INFORMAZIO GEHIAGO 943 50 60 10

